

TRENBIDEEN ERAGINA ZUMARRAGAn



Egileak: Pello Joxe Aranburu
Luis Mari Intza

Sumarioa:

Aurkibidea	1-2
Bibliografia	5
Argazki eta planoen aurkibidea	6
Sigla eta laburdurak	7
Hitzaurrea – Prólogo	8-9
Analisia	10-44
Eranskinak	45-64
Resumen en castellano	65-74

TRENBIDEEN ERAGINA ZUMARRAGAn

Atarikoak

1. Trenbidea eraiki zenean, Zumarraga herriko giroa, kezka, proiektu ezberdinak, GFaren jokabide eredugarria, diru-bilketak, behin betiko planoak eta alor besterentzea

Lehenik onartu zen proiektu ofiziala, 1856

Gipuzkoako Foru Aldundiaren konportamendu eredugarria

Urola Garaiko diru-bilketa

Olazti-Beasain trenbidearen emakida eta obren epe-amaiera

Urola Garaiko Norteko Trenbideko kilometroak

Zumarraga udalerriko alorrak besterentzen, 1858-1866

Zumarragako trenbidea eraikitzekeo planoak, 1858-1863

2. Norteko Trenbidearen eraikuntza Urretxu, Zumarraga, Ezkio eta Gabirian, obren amaiera barne

2.1. Baldintza plegua

2.2. Norteko Trenbidearen obrak Zumarragan, 1858-1864

Zumarragako trenbideko agenteak

Zumarragan lehen aldiko obrak, 1858-1862

Zumarragako errepide berria, Zubi-berri eta Loidiko iturria

Goierri eman ziren urratsak EGC enpresak obrak hartu aurretik

Zumarragan EGC enpresaren obrak, 1863-1864

2.3. Norteko Trenbidea inauguratu ondorengo zenbait arazo, obra eta haien berri

Trenbideko polizia

Zelaikoa eta Urretxu-Zumarraga bi herrien muga aldaketa

Eizaga tuneleko obrak, 1865

Zumarragako Artiz lantokia eta Norteko Trenbidea, 1860-70 hamarkadetan

Zumarragan berealdiko kexak, 1863-1874

3. Zumarraga Gipuzkoako trenbide berrien lokarri eta sareko erdigune

Durango-Zumarraga Trenbide estu berria

Zumarragako Baskongados-etako trengeltokia

Zumaia-Zumarraga beste trenbide estu berri bat

Zumarraga-Legazpi Urola Trenbidearen adarra

4. Trenbideen eragina Zumarraga Udalerrian eta Euskal Herrian

4.1. Zumarraga Udalerriaren bilakaera, XIX. mendean

4.2. Hazkunde industrialaren lehen adierazgarriak Zumarraga aldean

4.3. Zumarraga euskal komunikabideen erdigune, XIX. mendean

4.4. Juan Bautista Buska Preto eta trikitia Zumarragan

Noiz eta nola heldu zen, ordea, eskusoinua Euskal Herrira?

Juan Bautista Buskaren izakera irekia

Juan Bautistaren alde ezkutuak

Zumarragako Trikitiaren arbasoa Juan Bautista ote?

Olarteko aitona soinujolea

Rolin familia Zumarragan

Zegamako Ormazabal familia

Ezkioko Preskantoni

Parisko akordeoia, eskusoinua, Piamonteko “fissarmonica” edo euskal trikitiaren bilakaera

ERANSKINAK

1. agiria: Norteko Trenbideko eraikuntza Zumarragako UAn
2. agiria: Urola Garaiko diru-bilketa
3. agiria: Zumarragako alorrak besterentzen
4. giria: “Reglamento”
5. agiria: COMPAÑÍA DEL FERROCARRÍL DE DURANGO Á ZUMÁRRAGA
6. agiria: Zabalera ezberdineko trenbideak Gipuzkoan

Bibliografia

- Aguirre Franco, Rafael**, 1992, *Trikitixa*, Villabona, Martin Musika Etxea
- Aranburu Ugartemendia, Pello Joxe eta Intza Igartua, Luiz Mari**, 2006, Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan. . .
- Aristi, Pako**, 2001, *Gelatxo, soinuaren bidaia luzea*, EHTE
- Arteche Elejalde, Ignacio eta beste batzuk**, 2002, *Urolako Trena, 1926-1986*, Azpeitiko Udala
- Azurmendi, Xabier**, 2002, *San Adrian eta Inguruen Kondaira*, VI. GERRIKO IKERLAN-SARIKETA
- Herrerias, Beatriz eta Zaldua, J.**, 1997, *Industri Ondarea Legazpin*, Lenbur Fundazioa
- Idiakez, Antton eta beste batzuk**, 1998, Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Eusko Jaurlaritza
- Izagirre, Koldo**, 2001, *Elgeta, sasiaren sustraiak*, EHTE
- Larrinaga, Carlos**, 2002, El ferrocarril del Norte y el paso de los Pirineos a mediados del siglo XIX, entre Irun y los Alduides, Casino de Irun
- Idem**, 2003, “*El ferrocarril del Norte y su enlace transpirenaico a mediados del siglo XIX*”, III Congreso de Historia Ferroviario, Gijon
- Mendizabal, Antxiñe**, 2005, Zumarragako Trikitixa, Trikiti doinu kaletarra, EHTE
- Poydenot, Conseiller**, 1856, *RAPORT SUR LE CHEMIN DE FER DE FRANCE EN ESPAGNE*, Bayonne
- Olaizola Elordi, Juanjo**, 2007, *TRENBIDEA BILBOTIK DONOSTIARA, Trenbidearen 125 Urte Durangon*.
- Ramos Martinez, Javier**, 2004, Zumarragako Trikitirixia eta bere ingurua (1920-2004), Zumarraga

Argazki eta planoen aurkibidea

Urola arroko bost plano zati

1. Oazurtza-Zumarraga plano orokorra, 1858/01/10
2. Oazurtza-Zumarraga luzerako plano, 1858/01/10
3. Zeharkako planoen lau krokis
4. Brinkola-Urretxuko lehen plano
5. Brinkola-Urretxuko bigarren plano

Oria arroko lau plano zati

1. Zumarraga-Beasain plano topografikoa, 1858
2. Zumarraga-Santa Luzia aldaketa bat, 1858/02/5
3. Zumarraga-Santa Luzia beste aldaketa bat, 1858/03/5
4. Zumarraga-Santa Luzia hirugarren aldaketa, 1858/03/5

Argazkiak

Eitzaga 16. tunela (Luis Mari Intza)
Agirrebengoa-Uribarri Iturri-berri (LMI)
Aretxabaleta-txiki (Buskatarren Web)
Buska ondorengo zume fabrika (BW)
Buskatarren armarría (BW)
Juan Bautista Buska Preto (BW)
Buska sendia (BW)
J. B. Buskaren sinadura (BW)
Buskatarren ikurra (BW)
J. B. Buskaren jaiotetxea (BW)
Cernola jaioterria (BW)
Modelo lurrundegia Zumarragan I (Perez-Iskarren liburutik)
Modelo lurrundegia Zumarragan II (Perez-Iskarren liburutik)
Dilijentzia (Mitxelena Kulturunea)
“Hijos de Busca S.A.” (BW)
Zumarragako geltokia (J.R. Martinezen liburutik)
J.I. Buska Sagastizabalen bustoa (LMI)
Pradines anaien ziurtagiria (BW)
Zumarragako bista bat (Albun Gráfico Descriptivo del País Vascongado, 1914-1915, Guipuzcoa)
Zumarragako geltokia (Indalezio Ojanguren)
Zumarragako hotela (Urolako tren liburutik)

SIGLA eta LABURDURAK

a.a.	⇒ aipatu artikulua
a.o.	⇒ aipatu obra
AAO	⇒ Administrazioko Artxibo Orokorra, Alcalá
AGA	⇒ Archivo General de Administración, Alcalá
AHF	⇒ Archivo Histórico Ferroviario
BW	⇒ Buskatarren Web
C ^a	⇒ Compañía
CAF	⇒ Compañía Auxiliar de Ferrocarriles
Cia	⇒ Compañía
DEAH	⇒ Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa
DM	⇒ Duque de Mandas
EGC	⇒ Ernest Govin et Compañía
EHTE	⇒ Euskal Herriko Trikiti Elkarte
er.	⇒ erreal
err.	⇒ errealak
EUA	⇒ Errenteriako Udal Artxiboa
F.G.	⇒ Fondo Gordea (Mitxelena Kulturunea)
GAO	⇒ Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Tolosa
GEN	⇒ Gipuzkoako Elizbarruti Nagusia
GFA	⇒ Gipuzkoako Foru Aldundia
GPAH	⇒ Gipuzkoako Protokolo Artxibo Historikoa, Oñati
Km	⇒ kilometroa
LMI	⇒ Luis Mari Intza
LUA	⇒ Legazpiko Udal Artxiboa
M	⇒ metroa
MD	⇒ Mandaseko Dukea
NFA	⇒ Nafarroako Foru Artxiboa
N.T.	⇒ Norteko Trenbidea
O.P.	⇒ Obras Publicas
or.	⇒ orrialdea
orr.	⇒ orrialdeak
OUA	⇒ Ormaiztegiko Udal Artxiboa
PESA	⇒ Patricio Echeverria S.A.
PT	⇒ Protocolos de Tolosa
Pta	⇒ pezeta
SEMI	⇒ Sociedad Española Mercantil e Industrial
SGCME	⇒ Sociedad General de Crédito Mobiliario Español
SM	⇒ Serapio Mugika
Sr	⇒ Señor
TB	⇒ Trenbidea
TUA	⇒ Tolosako Udal Artxiboa
UA	⇒ Udal Artxiboa
UUA	⇒ Urretxuko Udal Artxiboa
zk	⇒ zenbakia
ZUA	⇒ Zumarragako Udal Artxiboa

HITZAURREA

Zumarragako Udalak bigarren urtez jarraian Angel Kruz Jaka Ikerketa Historikoaren Saria antolatu du 2007. urtean, ikerketaren arloari bultzada emateko eta Zumarragako Historia zabaltzeko helburuarekin.

Une honetan guztiz justifikatuta dagoela iruditzen zait, labur-labur bada ere, saria eskaintzen diogun pertsonaren irudia azaltzea. Angel Kruz Jaka gure Historiaren sustatzailea eta afizionatu nekaezina izan zen, eta ahalegin handia egin zuen bai Zumarragak bai inguruko herriek bizi izandako gertaeren nondik norakoak deskubritzen.

Bigarren deialdi honetan bi lan aurkeztu dituzte: horietako batek Legazpiri eta XVI. mendeari egiten dio erreferentzia, bai Espainian, bai Gipuzkoan eta bai gure herrian; eta besteak, zinez ikerketa lan ikaragarria denak, izenburuak ondo adierazten duen bezala, trenak Zumarragan izan duen eragin ikaragarrian sakontzen du ikuspegi guztietatik: hasi demografia bultzada handitik eta Udal honetan "Zumarragako industria iraultza" deitzen dugun horren oinarrietaraino. Izan ere, lehen Gipuzkoa barnealdeko herri nekazari txiki bat bazen, herrialde osoko komunikazio-gune garrantzitsuenetarikoa izatera pasatu zen. Haren babesean, azkar sortu ziren industria instalazio garrantzitsuak: esaterako, Justo de Artiz-ena, eta denborarekin, gehiago ere sortu ziren, hala nola, Rojo y Zaldua, Hijos de Juan Bautista Busca eta, azkenik, Esteban Orbegozo. Horrek guztiak aldaketa ikaragarria ekarri zuen herriko egiturari: Gipuzkoa osoko industria zona handienetakoa izatera pasatu zen eta horietako enpresa bat hiru mila langiletik gora izatera pasatu zen 1970eko hamarkadaren hasieran.

Norteko trenak, Baskongadoen trenak eta Urolako trenak osatutako tren-lotunea Zumarragan, gaur egungo Geltokien plazan, kokatu izana ez zen garai hartako udal agintarien jarrerari esker bakarrik izan, zeren horren inguruko erabakitze-gunea probintziatik haratago zegoen. Dena dela, Zumarragako agintariek orduko beharretara egokitzen jakin zuten, eta garai hartarako ikuspegi aurreratu batekin, hasiera-hasieratik bultzatu zuten haren instalazioa. Haiek bezalaxe, eta haiek emandako ereduari jarraituz, gaur egungo Udalak ere Zumarragak probintzia mailako komunikazio ardatz gisa duen garrantzia indartu nahi du, gure herriko bidaiarien joan-etorria sustatu, osatu eta bideratuko duen garraio-zerbitzuen geltokia bultzatuz.

Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza egileei buruz bakar-bakarrik esango dut aztertutako gaiaren ezagutza zabala erakutsi dutela zinez; ez daramatzate alferrik hainbeste urte gai hori hainbat eta hainbat artxibotan ikertzen, nahiz probintzia eta Euskal Herri mailako argitalpenak egiten; oraintxe bertan ere, Beasain ingurua eta Nafarroaren arteko muga barne hartzen dituen argitalpen berri bat gitera doaz

Argitalpen honek gure Historia hobeto ezagutzen eta jendea Sari honen hurrengo edizioetan parte hartzera animatzen lagunduko duela espero dugu Udaletik.

Iz.: Anton ARBULU ORMAECHEA
ZUMARRAGAKO ALKATEA

PRÓLOGO

Por segundo año consecutivo el Ayuntamiento de Zumarraga ha convocado en 2007 el *Premio Angel Kruz de Jaka de Investigación Histórica*, que pretende fomentar la investigación y, por extensión, el conocimiento de la Historia de Zumarraga.

Considero totalmente justificado en este momento glosar, aunque sea brevemente, la figura de la persona a quien dedicamos el Premio, Angel Kruz Jaka, incansable aficionado y difusor de nuestra Historia, quien dedicó un gran número de esfuerzos a descubrir parajes de los acontecimientos que vivieron, ya fundamentalmente Zumarraga, ya la historia de las poblaciones cercanas a nosotros.

En esta segunda ocasión, dos han sido los trabajos que se han presentado: uno de ellos hacía referencia a Legazpi y al siglo XVI, tanto en España, en Gipuzkoa, como en nuestra villa; el otro, ciertamente un gran trabajo de investigación, ha profundizado, como su propio título indica, en la influencia que han tenido los ferrocarriles en Zumarraga, desde todos los puntos de vista: desde el fuerte impulso demográfico hasta la puesta de las bases de lo que llamamos en este Ayuntamiento la *revolución industrial* de Zumarraga, pues si hasta entonces era prácticamente una pequeña población rural en el interior guipuzcoano, pasó a ser uno de los nudos de comunicaciones más importantes del país. A su vera nacieron rápidamente importantes instalaciones industriales, como la de *Justo de Artiz*, y con el paso de los años se pusieron otras, como la de *Rojo y Zaldua*, *Hijos de Juan Bautista Busca* y, finalmente, *Esteban Orbegozo*, que hicieron posible un gran cambio en el conjunto de las estructuras de la población, pasando a ser una de las zonas fuertes de la industria guipuzcoana, llegando a tener una sola de esas empresas más de tres mil trabajadores en la época que comenzó en 1970.

Fue del todo punto evidente que la colocación en Zumarraga del nudo ferroviario que formaron en la hoy conocida como Plaza de las Estaciones el Ferrocarril del Norte, el Ferrocarril de los Vascongados y el Ferrocarril Zumarraga – Zumaya no se debió únicamente a la actitud que tuvieron los gobernantes municipales en aquellos tiempos, pues sobrepasaba incluso la capacidad provincial, pero sí que las autoridades zumarragarras se supieron adaptar a las necesidades que en cada época iban surgiendo, y, con un punto de vista adelantado para aquella época, fomentaron desde un primer momento su instalación. Como ellos, y siguiendo su ejemplo, desde el Ayuntamiento actual queremos ahondar en la posición de Zumarraga como eje de las comunicaciones provinciales, dando nuestro impulso a la construcción de una estación intermodal que impulse, complete y ordene el tránsito de viajeros por nuestra villa.

De los autores, Pello Joxe Aranburu y Luis Mari Intza, han probado hasta la saciedad su gran conocimiento del tema investigado; llevan un gran número de años con él en los diferentes archivos, habiendo ya efectuado otras publicaciones, estando a punto de efectuar una nueva que integre el conjunto de la zona Beasain – límite con Navarra.

Desde este Ayuntamiento, esperamos que esta publicación contribuya a un mayor conocimiento de nuestra Historia, y que a su vez anime a otras personas a presentarse a nuevas ediciones de este Premio.

Fdo.: Antón ARBULU ORMAECHEA
ALCALDE DE ZUMARRAGA

ANALISIA:

NORTEKO TRENBIDEAREN ERAGINA

ZUMARRAGAn

Norteko Trenbidea, 1864ko abuztuaren 15ean, handikiro inauguratu zen Gipuzkoa osoan eta Urola Garaian ere, aurrez inaugurazio eguneko ekitaldi, egutegi eta xehetasun txikienak erabaki, prestatu eta aldarrikatuz herriz herri. Ekitaldiaren pertsonaia nagusia Espainiako erregea eta bere sekitoa izan ziren. Zumarragan, abuztuaren 9'45 orduan iragan zen lehen tren ofiziala, lokomotorak garraiatuak.

Gustavo Adolfo Bécquer idazleak “El Contemporaneo” aldizkarian abuztuaren 21ean, Europa mailako efemeride hartaz artikulu periodistiko interesgarri eta atsegina idatzi zuen. Merezi du iruzkin batzuk hona ekartzeak. Erret sekito hartan bidaiatu zuen Bécquer idazleak hamazazpi ordutan Madril-Donostiako ibilbidea eginez. Bezperan arratsaldeko bostetan Madrildik irten ziren politika, banketxe, arte eta literaturako pertsonaia ospetsuak. Ibilbide osoko deskribapen, oroitzapen eta ñabardurak utzi zituen:

- El Escorial (Felipe II.aren oroitzapena eta bere hilobi aurrean lokomotoraren txistua)
- Avila (Santa Teresaren oroitzapen bikoitza, eta ilunabarra)
- Medina de Campo (gaua, eta herri hartako garai bateko azoka eta tratalariak gogoan)
- Valladolid (israeliten antzera Gustavoren zutikako afari legea, eta lokuluska)
- Burgos (esnatu eta ordu bi t'erdia ziren. Katedralaren inguruko gogoeta filosofikoak)
- Miranda (idazlearen amets poetikoa, eta idazlea berriro esnatu egin zen)
- Olazti-Beasain (“En este momento comienza propiamente la inauguración. . . Se sale de un túnel para entrar en otro. Yo he contado en este trayecto hasta veintitantos y despues he perdido la cuenta. . .”)
- “En marcha” (jendearen ongietorriak, garaipen arkuak, etxeetako balkoiak oihalez josita, kanpai hotsak, bake ikurrak . . .). “He aquí que entre las nieves del Norte se forma como una gran tempestad. Mas no importa. Ya no hay Pirineos. Ya no hay Alpes tampoco. . .”)
- Donostian (Bécquer-en harridura ospakizunengatik, Kantauri itsaso zabala eta bere ostertza)
- Ospakizunak Donostia hirian eta elizan: otordua eta ekitaldiaren amaiera¹.

1. Trenbidea eraiki zenean, Zumarraga herriko giroa, kezkak, proiektu ezberdinak, GFaren jokabide eredugarria, diru-bilketak, alor besterentzea eta behin betiko planoak

Trenbidearen eragina azaltzeko orduan, garraio hura eraiki eta inauguratu zeneko Zumarraga eta bere inguruak nola zeuden antolaturik azaltzea komenigarri da: herrien kokapena, demografia, biztanleen egoera soziala, komunikabideak . . . Lehen Karlistada amaitu eta 1860 urte arteko egoera adieraziko da ondorengo

¹ Gustavo Adolfo Bécquer-en artikuluaen aurkikuntza Juanjo Olaizolari zor zaio, eskerrona lerro hauen bidez.

lerrootan, gero idazlan honen amaieran, XX. mendearen hasiera artean Zumarragari trenbideek eragin zioten bilakaera azaltzeko.

Zumarragak, 1860ko Biztanle Zentsuaren arabera, 1.393 biztanle zituen, Legazpi, Gabiria, Urretxu eta Ezkio herri mugakideek baino gehiago. Zumarraga eta Norteko Trenbidearekiko datuekin erlazionatutako kopuru eta herriak bakarrik kontuan izan dira hemen, Azpeitia, Azkoitia eta Antzuola beste mugakideak albora lagata. Biztanleriaren gehiengoa ehun bat baserritan bizi zen, bost auzotan sakabanaturik: Aranburu, Elgarresta, Leturia, Soraiz eta Aginaga izenekoetan. Garai hartan, baziren Zumarragan errota, teileria, lantegi eta nekazaritzatik bizi ez zen beste biztanleria gutxiengo bat. Norteko Trenaren Zumarragako polizien arautegian, ikusi eranskinetan, 1864an, iadanik baziren Zumarraga, Urretxu eta inguruko herrietan enpresa-gizonak, hara nola, Juan Mari Artiz, Pablo Iralagoitia, Basilio Fernandez, Antonio Bomba, Pablo Adon, Inazio Alzola eta abar. Zumarraga, beraz, aipatu garaian, guztiz nekazaria, baserritarra zen. Bestalde, Gabiria, Ezkio, Urretxu eta Legazpi herrietan antzera euskaraz mintzatzen zen.

Gipuzkoako trenbide-sarearen erdigunea Zumarraga bilakatu zen. Norteko Trenbidearen lehen plano ofizialak 1856an egin zituzten hiru inginiariek Zumarraga gune estrategikotzat hartu zuten, Deba, Urola eta Oria bailarak lotzeko gune ikusi zutelako. Horrela, Durango-Maltzaga-Bergara-Zumarraga eta Urolako bi trenbideekin gertatu zen hain zuzen.

1.777. urtez gero Madril-Irun errepidea Urretxu eta Zumarragatik igarotzen zen eta Lehen Karlistada ondoren Norteko Trenbidea eraiki baino lehen asfaltatu zen. Aldi beretsuan, 1860-1863 urteetan, Azkoitia-Urretxu-Legazpi errepidea eraiki zen. Beraz, Urretxutik igarotzen ziren bi errepideak eta Urretxun, Labeaga kaleko 8. zk.an zuen postetxea Espainiako Posta Zerbitzuak².

Zumarragatik trenbidea eraiki aurretik, beste proiektu asko egon ziren Euskal Herrian. Beste proiektu batzuk aipagarriak izan ziren. Lehena, 1831koa, izan zen, Gaztelako artilea Kadagua arrotik, Balmasedatik portura trenez garraiatzeko trenbide proiektua. Bigarrenengan, Gaztelako aletegia Orduñan zehar Bilbora eramateko asmoak agertu ziren. Gerratearen eraginagatik eta kapital faltagatik ez bata ez bestea ez ziren burutu³.

Trenbidearekiko ibilbide ezberdinak planteatu ziren. Dena den, eztabaidaren funtsak euskal herrialdeetako eremuak erruz gaintzen zituen, zera eztabaidatzen baitzen: Paris –Madril elkartuko zuen trenbidea, Baionatik igaroz, Pirinioak nondik zeharkatzea komeni zen, Irundik ala Baigorritik, Aldudetik alegia.

Gaiari dagokionez, Karlos Larrinaga historialariak, 2002. urtean, sakon eta zabal aztertu eta bere ondorioak atera zituen. Irakurleak bertara jo beza⁴. Jabier Maria Azkona nafarrak Diputazioaren izenean, 1853ko azaroaren 7an, Isidoro Dagueuet Baionako ingeniariari trenbideak egokien eta errazen Pirinioak zeharkatu zituen unea ikertzeko eskatu zion. Dagueuet ingeniariaren baitan eta bere atzean mugitu ziren pertsonaia eta interesak Larrinagak ikertu ondoren, Aldudeko trenbidea eraikitzeko proiektua atzerriko interesen arabera eginikotzat hartu zela dio. Lana 1854an amaiturik zegoen, baina, Baionako Udal Kontseiluaren ardurapean eta

² Idiakez, Antton, 1998, *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825)*, 35-36 orr.

³ Larrinaga, Carlos, 2002, *El ferrocarril del Norte y el paso de los Pirineos a mediados del siglo XIX, entre Irun y los Alduides*, Casino de Irun, 53-59 orr.
GAO, JD SM, 40, 8

Mugica, Serapio de, *Ferrocarriles del Norte*, GAO, JD SM, 22, 14, 1-2 orr.

⁴ Larrinaga Rodríguez, Carlos, 2002, a.o.

alkatearen sinadurarekin, 1856ko apirilaren 11n, “Raport sur le Chemin de Fer de France en Espagne” izeneko foiletoa frantsesez kaleratu zuen, Laserre moldiztegiak inprimaturik. Paris – Madril trenbidearen lau proposamen aztertu zituen egileak eta hiru ondoriotara iritsi zen foileto-egilea eta Baionako Udalarari proposamenak egin zizkion:

“PAR CES MOTIFS,

La commission, à l’unanimité, a l’honneur de proposer au Conseil Municipal d’émettre les vœux suivants, en les recommandant d’une manière toute spéciale à la bienveillante attention du Gouvernement:

1°. Que de tous les tracés indiqués et déjà étudiés pour relier le centre de l’Espagne à la France, celui de Bayonne à Pampelune par la vallée des Aldudes, tel qu’il a été étudié par MM les ingénieurs Duvignand et Daguene, soit préféré.

2°. Que si le Gouvernement Espagnol reconnaissait, d’après les études de ses ingénieurs, que le prolongement de sa ligne du Nord de l’Ebre à Irun offre de trop grandes difficultés, tandis que le tracé de l’Ebre à Pampelune n’en offre d’aucune espèce, il fût instamment prié de modifier dans ce sens la direction du chemin du Nord, qui, alors, partant de l’Ebre et passant par Pampelune, viendrait aboutir à la frontière française, au point indiqué par le projet de MM. Duvignand et Daguene;

3°. Que, dans tous les cas, et quand bien même la ligne du Nord de l’Espagne viendrait aboutir à Irun, le chemin de fer de Bayonne à Pampelune n’en soit pas moins approuvé et concédé, pour être exécuté le plus promptement possible”⁵.

Duvignand eta Daguene ingeniari frantsesen Aldudeko proposamenaren aldeko defentsa egin zuen Baionako alkateak Irun eta Somportekoa baino laburrago eta egokiagoa zelako⁶. Aipatu liburuxkak Hegoaldean berealdiko hautsak harrotu zituen eta, 1856-1864 urteetan, egunkarietako artikuluak kontuan hartu gabe⁷, Aldudetik trenbidea eraikitzearen alde eta kontra hamabi liburuxka behintzat Baiona, Donostia eta Madril argitara eman ziren⁸. Beraz, Mendebaldeko Pirinioak zeharkatzeko trenbidearen proiektua urte luzeetan eztabaidatua eta oso konplexua izan zen, tirabira hura XIX. mendeko elementu eta interes anitzek baldintzatu baitzuten. Añamendiko bi aldeetako ekonomia interesak, bereziki Donostiako merkataritza, Baionako portua eta Nafarroako interes ekonomikoak, Frantzia eta Espainiako interes politiko-ekonomiko eta bi estatuetakoa trenbide-politikak eta, azkenik, serioski Péreire eta Rothchild bi talde finantzieroen esku hartzeak kontuan izan behar dira arazoaz hitz egitean⁹.

⁵ Poydenot, Conseiller, 1856, *RAPORT SUR LE CHEMIN DE FER DE FRANCE EN ESPAGNE*, Bayonne, 32-33 orr. Serapio Muxikak ere a.a., 15-22 orr. landu zituen Aldudeko proiektuaren alde eta aurkakoak.

⁶ Larrinaga Rodríguez, Carlos, 2002, a.o., 85 or.

⁷ Ibidem, aipatu obrako 4. eta 6. kapituluak, garai hartako prentsa aztertuz, 99-108 eta 135-151 orr., gainera, gai berari dagokionez eta egileak liburuaren aurkibidean adierazten duenez, alde batetik, Espainiako Hemeroteca Nazionalea, Donostiako UAko prentsa eta Madrilgo UAko “La Asamblea del Ejército” 1857-8 eta 1861-64 gazetak eta, bestetik, Frantziako Liburutegi Nazionalea, Baiona eta Pabeko udal liburutegietako aldizkariak ere aztertu zituen.

⁸ Aranburu Ugartemendia, Pello Joxe eta Intza Igartua, Luiz Mari, 2006, *Norteko Trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan. . .*, 35-40 orr.

Bestalde, Aldudeko trenbidearen informazio oparoena GAOko Mandaseko Dukearen fondoan dago. Karlos Larrinagak aipatu bere liburuaren aurkibidean, XIX. mendeko bibliografian 34 liburu-liburusken berri eman zuen.

⁹ III Congreso de Historia Ferroviario, 2003, Gijón, Larrinaga Rodríguez, Carlos, “*El ferrocarril del Norte y su enlace transpirenaico a mediados del siglo XIX*”.

Pedro I. Apalategik, 1855ean, trenbidearen beste ibilbide bitxi hau aurkeztu zuen: Hondarribia eta Irunen erditik Erreterria - Donostiako Santa Katalina zubia - Antiguu - Lasarte - Andoain - Tolosa - Lazkaoko Betena-sagastin laugarren geltokia - Ataun - Lizarrusti - Etxarri - Altsasu zeharkatuko zituen Norteko Trenbideak bere proiektuan¹⁰.

Serapio Muxikak beste proiektu bat egon zela idatzi zuen. Pradoko markesak, Jose A. teniente koronel erretiratuak hirugarren ibilbide hauxe proposatu omen zuen: Gasteiz - Arroiabe - Oñati eta Arrasate erdian dagoen mendi-lerroa zeharkatuz Ordizia - Tolosa - Andoain - Lasarte - Donostiako ibilbidea aurkeztu zuen.

Zumarragako jendea, 1854-1856 urteetan kezkaturik ibili zen. Jabier Uribarren bere idatzi batean, 1854 urteko abuztuan, nahiko urduri ageri da, Norteko Trenbidea Zegamatik eraikiko ote zenaren beldur nonbait¹¹. Zalantza hark 1856 arte bederen iraun zuen, Madrilen orduan erabaki baitzen Zumarragatik eraikitzea. Dena den, zurrumurruak bai, baina, inon ez dago Seguratik trenbidea eraikitzeko proiekturik.

Urola eta Debarroko udalak mugitzen hasi ziren Norteko Trenbidea zela eta. Paper garrantzitsua jokatu zuen eginkizun hartan Bergarako alkate eta GFAko diputatu izan zen Telesforo Monzonek. Aipatu gaiaren gainean lehen bilera, 1856ko apirilaren 14an, Bergaran egin zuten eta ondorengo urteetan jarraitu zuten biltzen. Gai horri buruzko deialdi eta korrespondentzia dago Zumarraga eta Urretxuko bi artxiboetan.

Lehenik onartu zen proiektu ofiziala, 1856

Lehen proiektuaren plano eta memoria ofiziala Luis Torres, Enrique Alan eta Manuel Esttibans-ek, 1856ko maiatzaren 15ean, in situ idatzi zituzten. Otzaurte-Ormaiztegi ibilbidearen aldeko aukera hartzeko, Oria ibaiaren goiarroa, Aizkorri eta batez ere Aizkorrondoko toponimia eta orografia zehatzak aztertu zituzten. Legazpiko Oamendi, Barrendiola eta Urola ibaiaren ibilbideari arreta berezia ipini zioten. Zumarragan, Urola utzi eta berriro Oria ibaiaren arroa igarotzean, Ezkio, Gabiria eta Ormaiztegiko erreka-zulo eta mendi etengabeak behatu zituzten. Trenbideak ibilbide hartan tunel eta zubi franko eskatuko zuen. Proiektu hartan Urolaren arroa utzi eta trenbideak Eizaga tunelik gabe zeharkatuko zuen Oria ibaiaren arroko Iruerreketa amildegian sartzeko, hau da, gaurko trenbidea baino altuago eraikiko zen¹².

Gipuzkoako Foru Aldundiaren konportamendu eredugarria

Gipuzkoako agintariak azti ibili ziren Norteko Trena Herrialde eta Zumarragatik igaro zedin. Horretarako diru-bilketa aurrez prestatzen hasi ziren. Bada Donostiako alkateak eta Merkatal Ganbarako lehendakariak, 1857ko apirilaren 6an, Mandaseko dukeari idatzitako eskutitza, non Kollado, Luzuriaga eta Lasalatarrekin kontatzen zutela aitortzen den. Bestalde, Parisen, 1857ko abenduaren 29an, Norteko Trenbidea eraikitzeko lehen hitzarmena sinatu zuten "Sociedad General de Crédito Mobiliario Español" (SGCME) eta GFA bi erakundeek, lehenaren izenean Jose Joakin Osa lehendakaria, Jose Luis Abaroa eta Isaac Pereire administrariak eta bigarrenaren aldetik, berriz, Fermin Lasala Gorteetako diputatuak. Hamar artikulutan banaturik zegoen hitzarmena:

1. GFAak 25 milioi err. inbertituko zituen lau urtetan Bidasoatik Ordiziara SGCMEk eraikiko zuen Norteko Trenbidean.

¹⁰ GAO, MD, 23-2, 7-8 orr.

¹¹ ZUA, D, 6,1,2. Zegama - Segura esan nahi da.

¹² Kultura Ministerioa, AAO, OP, 25/7029.

2. Norteko Trenbidearen jarraipenean, Ordiziatik Zumarragara bitartean, aldiz, GFAak lehengo kopuruaren herena emango zion SGCME erakundeari.
3. Norteko Trenbidea Zumarragatik egitea erabakitzen zen bezain laster, lau urteko epea ezarri zitzaion enpresari.
4. Enpresa hark Norteko Trenbidean gastatuko zituen gutxiengo diru-kopuruak eta burutuko zituen obrak ere izendatu zituzten: lursailak erosi, lurrerauzketa, tunel, zubi, errail eta tren-geltokiak eraikitzea, besteak beste.
5. GFAak 25 milioiak honela emango zizkion SGCMEri: lehen bi urteetan bosna milioi eta bi azkenekoetan 7'50na.
- 6-10. Bost azken artikuluetan Norteko Trenbidearen finantzaketa, akzio eta obligazioen zehaztapen eta hitzarmenaren zenbait lege-formalitate gehitu zituzten¹³.

Gipuzkoar guztiei Norteko Trenbidearekiko fondoak biltzeko, 1858ko urtarrilaren 4an, lehen deialdi sutua zuzendu zien Ladislao Zabala diputatu nagusiak¹⁴ eta egun berean, beste txosten baten bidez gipuzkoarrei 25 milioi haiek biltzeko baldintzak adierazi zizkien¹⁵. Bestalde, Parisen, 1858ko irailaren 7an, Ordiziatik Nafarroako mugaraino Norteko Trenbidea eraikitzeko xehetasunak eta zenbait kontrata enkantean eman ziren. Gipuzkoako Diputatu nagusiak, irailaren 13an, idatzi bat bidali zien herrietako alkateei, erabaki horien berri emanaz, besteak beste, bi erakundeen arteko lehengo hitzarmenak berretsi, Kubatik GFAak espero zituen akzioak jasotzeko epea zortzi hilabetean luzatu eta SGCME arduratuko zen Zumarragatik Nafarroarainoko trenbidea eraikitzeaz¹⁶. Ramon Lardizabal, Telesforo Montzon eta Bartolome Artzak GFAko diputatu berriek eta, irailaren 15ean, SGCMEren izenean, Emilio Leon eta Jose Manuel Brunet-ek hitzarmen berria sinatu zuten.

Halaber, Gipuzkoako agintariek dirua biltzeko erraztasunak eman zizkieten jendeari. Hala, martxoaren 15eko txosten batean, Ladislao Zabala diputatu nagusiak akzioak hartzeko leku eta pertsona zehatzak izendatu zituen: Madrilen Migel A. Agirrezabala Gorteetako diputatua, Donostian Rafael Irigoien udaltzaina, Tolosan Juan F. Arrizabalaga GFAko diruzaina, Azpeitian Antonio Urdanpilleta Gipuzkoako mikeleteen komandantea eta Bergaran Maximo Larunbe Herrialdeko mikeleteen 2. kargua. Dena dela, zenbait udalen zailtasuna ikusirik, apirilaren 22an, udal ondasun propioak saltzeko baimena eman zitzaien¹⁷.

Urola Garaiko diru-bilketa

Urola Garaian, Legazpin 60.000 err. bildu ziren, ia denek 2na mila err, batek 4 eta beste batek 8 mila err. eman zuten. Urretxun 116.000 err. bildu ziren, kopuru haundiak eman ere: batek 4, beste batek 8, bostek 10na, batek 20 eta beste batek 32 mila err. Kopururik haundiena Zumarragan bildu zen, hain zuzen 132.000 err. Honelako kopuruetan, bostek 2na, zazpik 4na, hiruk 8na, batek 10 eta beste batek 30 mila err. Ezkion 4.000, Gabirian 7.000 eta Ormaiztegin 30.000 err. bildu ziren. Oro har, diru-emate apalak izan ziren nagusiki, hots, 2 mila errealekoak multzo haundi bat; 4 milakoak hamar, 8 milakoak sei, 10 milakoak bederatzi, 20 milako bi, banakako 30 eta 32 milakoak. Kopuru haundiagorik ez zen mailegatu. Urretxun izan ezik, beste herri guztietako apaizek beren akzio koskorra hartu zuten. Nekazal

¹³ GAO, JD IT, 507b, 25 eta ZUA, D,6,1,3

¹⁴ TUA, 8,1,4,2-5 orr. eta ZUA, D,6,1,4

¹⁵ GAO, MD, 23-1 orijinala eta ZUA, D,6,1,3

¹⁶ GAO, MD, 23-1 eta ZUA, D,6,1,11

¹⁷ TUA, D, 8, 1, 4,23-28 orr.

giroaren islada garbia izan zen, izan ere ez baitzegoen besterik. Ikusi eranskinetan xehetasunak.

Olazti-Beasain trenbidearen emakida eta obren epe-amaiera

Proiektu ofizialaren ondoren, 1856ko uztailaren 11ko legeak Gobernoa baimendu zuen SGCMEri Burgos-Irun trenbidearen emakida egiteko. Aldi berean, erakunde egileari baimena eman zion trenbideko obrak eraikitzeke atzerritik behar zuen material guztia ekartzeko. Urte bereko urriaren 18an, behin betiko aipatu obren emakida egin zitzaion erret dekretu baten bidez¹⁸. Burgos-Olazti arteko ibilbideak burutzeko lau urteko epea zuen bezala, Olazti-Beasain zatiari zazpi urteko epea eman zioten. Baina, behin betiko obren plano ofizialak 1858ko maiatzaren 5ean onartu zirenez gero, obrak uste baino luze eta gatazkatsuagoak gertatu ziren.

Urola Garaiko Norteko Trenbideko kilometroak

Kilometroen hasierak Madrilen zero zuen, Gipuzkoako Otzaurten 542'20 km-an sartu eta Beasaingo Igartzan 580'50 km-ra iristen zen. Honela daude Otzaurte-Igartza arteko km-ak banaturik.

Herria	Km-ak	luzera km-tan
Zegama	542'20-556'50	14'30
Legazpi	556'50-564'50	8'00
Urretxu	564'50-565'50	1'00
Zumarraga	565'50-568'00	2'50
Ezkio	568'00-569'50	1'50
Gabiria	569'50-573'00	3'50
Ormaiztegi	573'00-576'00	3'00
Beasain-Igartza	576'00-580'50	4'50
Otzaurte-Igartza		38'30

Zumarraga udalerriko alorrak besterentzen, 1858-1866

Zumarragan, 1858ko abuztuaren 7an, lur-jabeek Bergarako Santiago Sarasola arkitektoa hautatu zuten beren alorrak tasatzeko eta SGCMEk, berriz, Oreindaingo Frantzisko I. Eizagirre aditua¹⁹. Zumarragako alorrak, 1858-1866, zortzi urteetan besterendu ziren, alor gehientsuenak lehen lau urteetan. Ohikoa zenez, alorren jabetza oso zatikatua zegoen eta, gainera, anitz bider jabea herritik urrun bizi zenez, maizterrek erabiltzen zituzten soro, gaztainadi, belaze e.a. Udaleremuan 32 soro 364'92 area, 26 gaztainadi 354'35 area eta arearik gabeko Pedro Añorga eta Juan Iturriaren beste bi gaztainadi handi, eta 209'02 m³ pareta besterendu ziren, halaber, 9 zuhaitzi, 6 belardi, 2 sagasti, garadi eta otadi franko. Zelaiko etxea suntsitu zen, 25.429 err. ordainduz, era berean Loidi baserria ere. Zumarragan besterendutako alor eta kontzeptu guztiengatik gutxienez 164.305 err ordaindu ziren.

Toponimiari zegokionez, Egibide, Aldasbarren, Ibarguren, Aristi, Aldats, Oianguren-aundi, Matxain-erdiko baserrietako sailak eta Txorroalde, Elizorte (hau sarritan), Loidi leku-izenak dokumentatuak agertu dira. Herrian ez zegoen populaketa trinkorik, sakabanatua baizik, anartean nekazal herri huts baitzen. Gero etorriko ziren aldaketak, industrializazioa, trenbide-gune bilakatzearekin batera.

¹⁸ AHF, C04

¹⁹ ZUA, D, 6,1,9

Zumarragako alorrak batuz beste Urretxukoak baino merkeagoak ordaindu ziren, metroa 92 err. alegia, nahiz eta Legazpikoak baino garestia goak izan. Horra eranskinetan aurkitu ahal diren eskrituretako jabeak, alor-xehetasunak, areak, balioa, data eta iturriak.

Zumarragako trenbidea eraikitzekeo planoak, 1858-1862

Zumarragako udaleremuan trenbideak 2'50 km egingo zituen. Gune horretan, alde batetik, Oazurtza-Zumarraga arteko bost plano (13'5 km) eta, beste alde batetik, beste lau plano kontutan hartu dira idazlan honetan, denak Zumarraga udaleremukoak.

Urola ibaiaren arroko planoak

1858ko urtarrilaren 10ean, Arturo Orgeries Otzaurte-Tolosa zatiko arduradunak egin, C. Letourneur-ek onartu eta proposatu ondoren, urte bereko abuztuan errege dekretuz onartua izan zen. Trenbideak Legazpiko udaleremua amaitu eta Urretxun sartzean, Elias Benta ondoan, Madril-Irun errepidea ezkerretik eta Urola ibaia eskuinean zituen, baina, handik 600 m-ra ibaia zeharkatu eta Zumarragako Jauregi errota ondoan trengeltokia jarri zuten, alde batetik, Urretxuko Intxina teileria, Kaipe, Eratzu eta Txaloeta izeneko eraikuntzak eta, beste aldetik, Zumarragako Teileria zihuan bidea besterik ez dira aipatzen. Trengeltokiari 400 bat m-ko luzera emango zitzaion. Data bereko luzerako beste planoan, ibilbide beraren luzera eta desnibelen xehetasunak eman zituzten, 538 m-tik 13'5 km-tan 350 m-ra jaitsiz. Oazurtza tunelak 0'010eko aldapa izango zuen bezala, beste 9.600 metrotan trenbideari 0'015ekoa ezarri zioten.

Bada aipatu ibilbideko zeharkako beste plano bat, non lau motatako trenbidearen zabalera onartu ziren: eremu laua, lubeta, lur eta harri kentze eta eustorma edo mantenimenduko murrak. Kasu bakoitzean eraiki behar ziren perfilak ere eman ziren. Trenbideko lubeta batek minimoki 7'40 metroko oinarria izango zuen eta gradualki piramide eran zabalduz joango zen betelanak agintzen zuen arte. Lur kentze kasuetan, bi aldeetatik lur-tartean geratzen zenez, hark ere minimoki 7'40 metroko oinarria, baina bi aldeetan zanga sakon bana zulatuko zen. Harri kentze kasuetan, oinarri bera, baina bi zanga txikiago nahiko ziren. Azkenik, eustorma edo mantenimenduko murrak mendien malden arabekoak eraikiko ziren, dena dela, oinarri bera eta mendi aldetik beti eramango zuten zanga sakon bat. Lau kasuetan zangek helburu bera zuten, trenbideko urak bideratzea.

1862an, ibilbidean aldaketak egiteko beste bi plano egin ziren. Azken km-an trenbidea herri batetik bestera ibiliko zen: 116. zutoinean Zumarragan sartu eta 118. zutoinean atera, berriro Legazpira iraganez, 123'5. zutoinean Urretxun sartu eta 130. zutoinean, azkenik, Zumarragara pasatuko zen. Urretxuko partean Elias Benta, Intxina, Kaipe, "La Tejera" eta Madril-Irun errepidea ageri dira. Planoa 130-135 zutoinetan, km erdiko zuzenean, Urretxuko trengeltokia proposatu zuen, kontuan izan behar dugu, ordea, Zumarragako zati bat ere bazela. Ikusi eranskinetan planoen erreproduzio partzialak.

Oria ibaiaren arroko planoak

Urolaren arroa utzi eta Oriaren arrora igaroko zen Eizaga tunelaren bidez. Estibans-ek, 1858an, Zumarraga-Beasaingo plano topografiko oso bat gauzatu zuen lau ibilderekin. Ibilbideak zehaztaper gehiegirik gabekoak dira eta ez dute luzerako neurririk, hots, hektometroko zutoinik. Hiru ibilbide Gabiria herriaren ospeletik trazatu zituen. Laugarrenak proiektu guztiak hautsi zituen, Ezkio eta Itsaso aldetik

trazatu baitzuen, Ormaiztegi ere eguteratik pasa eta Salvatore aldera bideratuz. Ormaiztegiko zubia saiesteko aukera garbiak izan ziren lehena eta laugarrena.

1858ko otsaila eta apirilean, hiru plano aurkeztu zituen. Otsailaren 5eko planoak 13.400 m luzera eta 0'015 desnibela zeraman 12.100 m-tan. Ibilbide osoa tunel, lubaki eta zubiz josia zegoen: 9 tunel, 20 bat lubaki haundi, 8 zubi eta erreka zokogune franko bete beharrekoak izango ziren, trenbideak etengabe desnibelari eusteko. Martxoaren 5ean, beste bi plano partzial aurkeztu zituen, 0-50 zutoinekoak, hau da, Zumarragako 566 km, trengeltokitik Agerretxemendi baserrira artekoak, bata deskribapen plano eta bestea luzerakoa. Ikusi eranskinetan.

Goierriko trenbidearen eraikuntzan urte erabakigarria gertatu zen 1862.a, hain zuzen, gero adieraziko denez, elkarrekin loturarik ez zuten kontratista andanaren hitzarmenak SGCMEk eten eta "Ernest Govin et Compañie" (EGC) erakunde bakarrari Olazti-Beasain arteko obra guztiak eman zizkion urtea. Trenbidearen plano aldaketak Pradines anaiek jasandako istripuekin loturik egon zitezkeen, baina, luiziak lurraren izaeratik gertatu ziren. Urte berean, aipatu erakundeko bi ingeniariak Zumarraga-Beasain trenbidearen trazadura aldaketak proposatu eta onartuak izan ziren.

2. Norteko Trenbidearen eraikuntza Urretxu, Zumarraga, Ezkio eta Gabirian, obren amaiera barne

Trenbidea eraikitzekeo planoak onartzeaz gainera, beste urrats batzuk eman ziren, hara nola, baldintzen plegua idatzi, trenbide sistema hautatu eta aurrekontua aurkeztu zen, emakida hitzarmena egin baino lehen.

2.1. Baldintza plegua

Txostena hogeita hamar baldintza zituen pleguarekin amaitu zuten. Plegu osoa 1844ko abenduaren 31 eta 1846ko martxoaren 18ko bi erret dekretuetan oinarriturik zegoen. Obra osoa trenbide bikoitzean pentsaturik zegoen eta baldintzen irakurketak berarekiko ideia garbia adierazten du.

2-8. artikulua: aurrez proiektatutako Gipuzkoako ibilbidean, bide lau eta nahiko zuzena eraikitzekeo, derrigorrezko ziren tunelak, lurrerauzketak, lubetak, harri-hormak, murrak, eskoilerak eta betelanak egitea. Hori guztia arautzen da zazpi artikuluetan.

9-11. artikulua: trenbide inguruan isuritako urari aurre egitekeo, estoldak eraikitzekeo araudia eman zuten hiru artikuluetan.

12-21. artikulua: bederatzi artikuluetan zubien gainean ziharduen.

22. artikulua: bide, errepide eta erreken desbideratzeaz ari da.

23. artikulua: trenbidea 1'5 m-ko harresiz babestuko zen.

24-30. artikulua: azken zazpi artikuluetan trenbide bera, errail, lokomotora, trengeltoki, guardetxe, telegrafia eta tunelen ezaugarriak arautu zituzten.

Garai hartan bi errail-mota erabiltzen ziren, Alemaniakoa eta Amerikanoa, azken hura hautatu zuten Norteko Trenbiderako. Ezaugarri hauetako errailak proposatu zituzten: m-ko 34 kilo, altura 0'12 m eta zabalera 0'102 m. Trabiesek 0'90 eta errailek 1'688 m-ko tarte eramango zuten. Hasieran trenbideak bi errail bakarrik izan arren, tunel, zubi eta trenbidearen zoru lau errail ipintzekeo eraikiko zen.

Bestalde, Gipuzkoako trenbidean, "Camino de Hierro del Norte de España"izeneko enpresak 144 bat milioi erreal gastatzea aurreikusitako zuen. Goierri aldeko kilometroa Beterrikoa baino askoz garestiagoa suertatuko zen, hau da, Zumarraga aldeko km-a

2 milioi eta gehiago kostako zen heinean, Arama-Irun zatikoa ez zen milio batera iritsiko. Aldeak kontzeptu hauetan egongo ziren.

Kontzeptua	Beterriko datuak		Goierriko datuak	
	Kopurua	Errealak	Kopurua	Errealak
Soroa	5.085 area	1.332.270	1.849 area	379.990
Basoa	193 area	15.440	11.085 area	829.124
Sagastia	2.705 area	432.800		
Baratza	53 area	15.700		
Lurlautze lanak		6.940.542		22.799.301
Murruak		967.460		7.000.720
Tunelak	9	9.724.000	12	22.667.500
Fabrikako obrak eta beste osagarriak		20.642.492		31.688.549

Soro, baratza eta sagasti ugari besterenduko ziren Beterrin, Goierriin, aldiz, gutxi. Dena den, aurrez ikusitako gasturik nabarmenenak Goierriin lurlautze, murru, tunel eta fabrikako obretan egongo ziren.

2.2. Norteko Trenbidearen obrak Zumarragan, 1858-1864

Trenbidea eraikitzeke garaian, Gipuzkoan ez zegoen gaitasun ekonomiko eta teknikorik, kanpoko kapitalak eta enpresek egin zituzten ia obra guztiak. Gipuzkoan lehen banketxe modernoa, “Banco de San Sebastián” izenekoa, 1863an, fundatu zen. Aipatu trenbidea eraikitakoan enpresa txiki bat eratzeko eta zenbait obra egiteko, nekez eta kostata diru-metaketa apalak eman ohi ziren. Tolosa inguruan, Gipuzkoa osoan bezala horra adibide batzuk:

- 1840ko urriaren 7an, Tolosan Jose Maria Etxaniz, Jose Gregorio Etxezarreta, Pedro A. Kerexeta, Blas Irazusta eta Migel M. Altzibarrek 107.121 errealeko diru-metaketa osatu zuten²⁰.
- 1840ko abenduaren 17an, Laskibar aita-seeek Jose J. Azurmendiri 1.800 dukat mailegatu zizkieten²¹.
- 1845eko irailaren 15ean, Errukietxe zaharra eta Mendia trinketaren arteko baratzean eraikuntzak egiteko Juan Domingo Garriagak Frantzisko I. Iartzari 41.000 err. eman zizkion²².
- 1846ko azaroaren 28an, Manuel Otadui tolosarrak Juan Bautista Laskibarri 20.000 err. %3an mailegatu zizkion²³.
- 1848ko irailaren 15ean, Tolosan Pedro Lesperurt eta kideek oihal eta ehungintzako fabrika berria eraikitzeke 100.000 pisu mailegatu zituen Jose Maria Artolak %6an²⁴.
- 1851ko irailaren 19an, Jose Maria Artola berak Adam Weudman-i beste 223.600 err. %5ean mailegatu zizkion²⁵.
- 1852ko martxoaren 30ean, Frantzisko Fanok 60.000 err. %5ean mailegatu zituen²⁶.

²⁰ Ibidem, 745 sorta, 330-345 orr.

²¹ Ibidem, 744 sorta, 561-570 orr.

²² Ibidem, 813 sorta, 913-916 orr.

²³ Ibidem, 815 sorta, 1503-1504 orr.

²⁴ Ibidem, 3233 sorta, 372-376 orr.

²⁵ Ibidem, 3367 sorta, 858-859 orr.

- 1853. urtean, hiru mailegu bederen egon ziren: otsailaren 22an, Korreos kaleko 61. etxean 77.000 err. inbertitu zituen Joakin Furundarena tolosarrak²⁷; apirilaren 6an, Euskalerriko dirudunen kapital-metaketa, 530.000 errealekoa %5ean, besteak beste, Iruñeko Zurbano eta Altzibar, Tolosako Borgasko markesa, Zegamako Artza, Segurako Maiora, Gasteizko Morga alarguna eta Fermin Furundarena Tolosako benefiziatuak²⁸, eta, uztailaren 13an, Oihal eta ehungintzako fabrika ondoan zegoen etxea erosteko Jose Maria Etxeberriari 59.599 err. %6an ordaindu zizkion²⁹.
- 1855eko maitzaren 26an, Larraulgo Jose Tapiak Frantzisko Fano tolosarrari 40.000 err. %3an mailegatu zizkion³⁰.
- Tolosako “La Esperanza” paper fabrikaren kapitala milioi errealekoa edo 250 akzio zortzi mila errealekoak izango ziren.
- 1866an, Beasaingo “Goitia y comp.” enpresako kapita honela osatu zuten: Domingo Goitiak 3.138.900 err., Jose Frantzisko Aranak 391.255 err. eta Usabiagaren ondorengoek 516.215 err., guztira 4.046.000 err.

Adibide horiek garbi eta argi uzten dute trenbidearen 144 milioko aurrekontuari aurre egiteko gaitasunik ez zegoela Herrialde osoan³¹. Bestalde, industriarik ezak, hots, lokomotora eta trenbideko materiala, esaterako, errailak egiteko gaitasun faltak Espainiako gobernuak kanpoko enpresari arantzel baimen osoak ematera bultzatu zuen. Beraz, kanpoko konpainiak Norteko Trenbidea eraikiko zuen, nagusiki atzerriko kapitala, materiala eta giza baliabideekin.

Zumarragako trenbideko obrak testuinguru zabalago batean kokaturik egon ziren. Madril-Olazti eta Irun-Beasain arteko trenbideari baldintza batzuk eta Olazti-Beasain zatiari tratamendu berezia eman zitzaion, lehen plano eta aurrekontuan agertu denez, desnibel maximoaren mugan egon, zailtasun tekniko eta geografikoak ere antzekoak izango baitzituen.

Goierriko obra haiek gatazkatsuak gertatu ziren. SGCME enpresak hasi eta amaitu zituen, esan nahi da konpainia kontzesionaria bakarra egon zela, baina bi etapatan banatua. Lehen aldi batean, 1858-1862 urteetan, enpresa txiki askoren artean banatu zituen obrak eta bigarren aldian, 1863-1864 bi urteetan, aipatu enpresa kontzesionariak hitzartutako kontratuak eten eta obra guztiak atzerriko EGC beste konpainiari eman zizkion, erdi buruturik zeudenak eta hasi gabeak, denak 1864rako amaitu zitzaizkion.

Aipatu bi alditan Zumarragako udaleremuko trenbidea eraiki zuten konpainia, kontratista, tekniko eta arduradunak eman dira ondorengo laukian.

Zumarragako trenbideko agenteak

Kontzeptua	Izena	Ardura edo eginkizuna	Urtea
Erakundea	SGCME	Trenbidearen kontzesionario	1858-1864
	EGC	Enpresa hobetsia	1863-1864
Ingeniaria	A.C.	Ingeniarien burua	1856-

²⁶ Ibidem, 3368 sorta, 159-160 orr.

²⁷ Ibidem, 3369 sorta, 100-110 orr.

²⁸ Ibidem, 193-200 orr.

²⁹ Ibidem, 283-284 orr.

³⁰ Ibidem, 3371 sorta, 266-267 orr.

³¹ Kultura Ministerioa, AAO, OP, 25/7029

	Letourneur		1864
	Lemarc	EGCko burua	1863-1864
Administraria	S. Boyer	Zumarragako ardura	
	M. Landarre		
	Gallard		
Notarioa	Eizagirre	Zumarragako notaritza	
Kontratista	Estevan Bergés	Eitzagako tunela	1858-1861
	F. Azkarraga	Eitzagako tuneleko Bergésen ordezkokoak	1858-1862
	A. Atxa		1858-1861
	Legaristi		1858?-1864
	Lete	Zumarragako obrak	1860
	J. Dessans		1858-1862
	J. Roche		1862
	C. Mitaine		1863
	B. Mendia		1864
	Pradines Anaiak		1858-1864
	J. Magnet		1865
	F. Ancel		
	A. Chaumeton		
	J. Texerand		1864
	B. Vernet		
	Juan Maria Artiz		1860-1864
	Marzelino Ugalde		
Bizente Zabala			
Harrobia	Atxibita	Trenbideko harria Zumarragan	1859-1864
	Egia		
Karobia	J.B. Monteberde	Karegilea	1861
Itzaina	F. Zangitu	Harri garraioa trenbidera	1860
	P. Aiertza		
	A. Azelai		1861
	J. Etxeberria		
	A. Iraeta		
	P. Basterrika		
	F. Iraeta		
F. Eizagirre			

Zumarragan lehen aldiko obrak, 1858-1862

Kronologia ordenean Zumarragako trenbidearen obrak deskribatu dira jarraian.

1858ko irailaren 1ean, Parisen, Ordiziatik Nafarroako mugaraino Norteko Trenbidea eraikitzeke xehetasunak erabaki ziren. SGCME erakundeak Gipuzkoako Diputatu nagusiari idatzi bat bidali zion, erabaki horren berri emanez. Besteak beste, bi erakundeen arteko lehengo hitzarmenak berretsi, Kubatik GFAak espero zituen akzioak jasotzeko epea zortzi hilebetean luzatu eta SGCME arduratuko zen Zumarragatik Nafarrorainoko trenbidea eraikitzeaz³².

Irailaren 12an, SGCME erakundearen izenean, Burgostik C Letourneur ingeniariaren buruak hogeita bi obraren zehaztapenak adierazi zituen³³. Eitzaga tunela eta 566-567 bi km-ak Estevan Bergés kontratistak 1.436.274 err. hartu zituen. Bergés-ek, ordea, beste kontratista batzuen ardurapean utzi zituen, %ko portzentaia bat eskuratuz. Aurrez hark Gasteizen Frantzisko Azkarraga eta Antonio Atxa gazteitarrekin elkarte bat osatua zuen³⁴. Obrak gasteiztarren eskuetan uzteaz gainera, 30 bagoi milana err. balio zutenak eman zizkien, aurrerantzean obren ardura osoa eskuratu zuten, baina diru-kontuen %10ekin bera geratuko zen. Diru-garbiketak egiteko bitartekariak ipini zituzten, Bergés-ek Oazurtzako Eujenio Ruyband eta gazteiztarrek Gregorio Atxa, haiek adostasunera iristen ez baziren beste konponbide bat aurrez ikusi zuten³⁵.

Bergés-ek hartutako obren esku-aldaketak, 1859-1864 urteetan

Hasiera-hasieratik Bergés-ek Zumarragako lanak beste batzuen eskuetan uztea prometatutik zeukan. Hori frogatuko dute ondoren adieraziko diren hitzarmenek: 1859ko otsailaren 18an, Jose Ramon Legaristi urretxuarra eta Pedro Lete gasteiztarrek elkartean sartu ziren, %4a ematekotan³⁶; 1860ko ekainetik azarora bitartean lau hitzarmen gauzatu zituen Legaristik eta, azkenik, 1860ko uztailaren 9ko behin betiko hitzarmena burutu zuten Azkarraga, Atxa eta Legaristi bazkideek, aurrekoak ezabatuz. Loidiko errepide berria, Eitzaga tunel eta lubakietan egindako zenbait lanen diru-garbiketak eztabaidatu eta erabakiak hartu zituzten goian aipatuek elkarrekin. Legaristik elkartea utziko zuen, 60.000 err. jasotzekotan eta bera arduratuko zen Pedro Leterekikoak egiten. Gainera, Bernardo Mendiarengandik 35.980 err. jasoko zituen, Loidi ondoko errepide berria desbideratzeagatik. Legaristi eta Lete egindako lan guztiak kitatzeko lau epetan ordainduko zitzaizen zegokien kopurua³⁷; uztailaren 9an, Juan Maria Artiz Zumarragako sendagilea, Marzelino Ugalde eta Bizente Zabala ere taldean sartu ziren; 1860ko uztailaren 11n, Atxa osasun arazoak zirela bide elkartetik atera egin zen, baina, 1861eko azaroaren 9an, bi baldintza jarri zituen, bata diru-kontuen %2'5 jasotzea eta bestea 12.000 err. mementuan³⁸, eta, 1864ko martxoaren 20an, Juan Maria Artizek Bernardo Mendiari bere ardura guztiak eman zizkion 20.000 errearen truke³⁹.

³² ZUA, D,6,1,11. Aipagarri da Antonio Pradak idatzitako artikulua. Ibidem, 1698-7. Zumarragako lubakia, 1996an estalia zela bide, "La construcción del camino de hierro del Norte en Zumarraga, la Trinchera" izeneko artikulua idatzi eta, 1997an, argitaratu zen, non xehetasun interesgarriak dauden.

³³ ZUA, D,6,1,11

³⁴ GPAH 1/4693, 157-159 orr. Gero ikusiko dugunez, Jose Ramon Legaristik bere burua ere bazkide zela aitortuko du.

³⁵ Ibidem, 1/4694, 499-500 orr.

³⁶ Ibidem, 1/4693, 151-153 orr.

³⁷ Ibidem, 1/4695, 271-276, 299-304 eta 479-482 orr.

³⁸ Ibidem, 1/4697, 572-574 orr.

³⁹ Ibidem, 1/4701, 247-249 orr.

1859ko maiatzaren 30ean, Zumarragako Antonio Alzolak Julio Capgras kontratistari Atxibita baserriko harrobia errentan, 30.000 errealean, eman zion trenbideko lanak irauten zuten bitartean⁴⁰.

Uztailaren 30ean, Sagastizabal baserrian egindako hitzarmena aipatu zen eta eztabaidatzen zen puntua hauxe zen: Zumarraga-Ezkioko tunelak egiteko hitzarmenean ea zenbat sinatzaile ziren. Jose Ramon Legaristik E. Bergés, Azkarraga, Atxa eta bera lau aitortzen zituen bezala, Bergés-ek ukatu egiten zion sinadura hura⁴¹.

Abuztuaren 17an, Jose Ramon Legaristik Urretxun bizi zen Julio Capgras kontratista frantserarekin Egia baserriko harrobia errentan eman zion, gurdika kare 34na err. ordaintzekotan⁴². Julio Capgras-ek karea eten gabe egiteko labea eraiki zuen eta Hernanitik karobira 400 kintal harrikatz garraiatzeko hitzarmena sinatu zuen, abuztuaren 18an, Ormaiztegiko Manuel Elgarresta itzainarekin⁴³ eta, urriaren 26an, berriz, Antonio Alzelai eta Juan A. Pagola bi itzainekin beste hitzarmen bat egunero bost gurdika harrikatz eramateagatik 28na err. jasoko zituzten⁴⁴.

Azaroaren 14an, Pedro eta Francisco Pradines kontratista anaiak ere Zumarragan hitzarmenak egiten zebiltzan. Zumarragako Elizaberri ermita errentan hartu zioten Udalari, hark enkantean jarri ondoren. Hiru hilebetero 1.500 err. aurreratuko zuten errentan⁴⁵.

Abenduaren 2an, SGCME enpresak Zumarragako Jose Maria Iarzari soroa 14.634 err. errentan ordaintzekotan hartu zion, trenbideko lur-hondakinak bertan botatzeko⁴⁶.

Abenduaren 11n, trenbidearen eraikuntzan, igandetana lana egiteko baimena eskatu zen. Zumarragako Antonio Atxak alkateari Zumarragako Egibideko obrak bukatzeko igandetana lana egiteko baimena eskatu zion. Horretarako bi arrazoi ageri dira: neguko eguraldi txarra eta lanak amaitzeko epe laburra. Handik hiru egunera alkateak Gobierno Zibilera idatzitako eskutitz batean gai bera ageri da ZUAko dokumentuetan eta, abenduaren 27an, Iruñeko gotzaindegitik baiezko baimena iritsi zen Zumarragara, lana egin zezaketen, baina, meza entzun ondoren⁴⁷.

1860ko martxoaren 9an, Arraseta harrobiko harria erabiltzeko beste hitzarmen berri bat egin zuten Capgras eta Bergés kontratistek Legazpiko Prudentzio Urzelai, Jose Migel Guridi eta Simon Berasategi harginekin. Harria, 1.500 m³ harlandu neurri jakinekoa, m³ bakoitza 120 err. eta tamainura iristen ez zirenak 93 err. ordainduz, Zumarraga-Ormaiztegi arteko tuneletan erabiliko zen⁴⁸.

Apirilaren 10ean, Eizaga auzotik tuneletara hondarra, karea eta harria garraiatzea hitzartu zuten Juan Bautista Monteberde eta Alzelai aita-seeekin⁴⁹; 12an, beste hitzarmena Joakin A. Sagastizabalarekin materiala non utzi zitekeen⁵⁰ eta 24an,

⁴⁰ Ibidem, 1/4694, 485-486 orr.

⁴¹ Ibidem, 560-561 orr.

⁴² Ibidem, 1/4694, 602-604 orr.

⁴³ Ibidem, 667-668 orr.

⁴⁴ Ibidem, 732-733 orr.

⁴⁵ Ibidem, 1/4693, 1-4 orr.

⁴⁶ Ibidem, 3/2859, 776-780 orr.

⁴⁷ ZUA, D,6,1,12. Karpeta berean gordetzen dira eskutitza horiek, gainera, bada beste eskutitz bat, 1868-05-14koa, non, 1858an emandako baimena oroituz, zera eskatzen zitzaion alkateari N.T.ko langileei igandetana meza entzunarazteko.

⁴⁸ Ibidem, 1/4695, 148-151 orr.

⁴⁹ Ibidem, 181-182 orr.

⁵⁰ Ibidem, 184-185 orr.

Zumarragako Inazio Altzolak %1ean 70.505 err. mailegatu zizkien Pradines bi anaiei, urriaren 25ean itzultze epearekin⁵¹.

Maiatzaren 8an, Legazpiko Lakiola harrobian Pradines anaiei harria ateratzea debekatu zitzairen eta Bergés kontratistak herriko alkateari debekuaren arrazoiak eskatu zizkion⁵². Bergés kontratistak, urriaren 21ean, Legazpiko Masukariola baserri ondotik harria Egibide eta Eizagara garraiatzeko hitzarmena egin zuen Legazpiko Gregorio Zaloña, Urretxuko Simon Izagirre, Zumarragako Frantzisko Zangitu eta Pedro Aiertza itzainekin⁵³. Pradines anaiek, azaroaren 25ean, Elizaberri ermitaren errendamendua luzatu zuten Udalarekin, urtean 1.500 errealean eta, abenduaren 13an, Idiazabalgo Jose Bautista Berasategiri 24 m³ bago ohol bakoitza 270 errealean erosi zioten⁵⁴. Bestalde, Bergés-en ardurapean Egibideko lubakian Asensio Juanbeltz sobrestanteak lan egin eta 4.000 err. eskatu zion⁵⁵.

1861eko apirilaren 12an, Pradines anaiek Eitzaga, Olazabarren eta Erizmendi tuneletako hondarra eta karea garraiatzeko hitzarmen aldaketa gauzatu zen Pedro Bergaretxe, Domingo Lizarralde eta Frantzisko Ibarguren itzain berriekin 18 err. m³ bakoitzeko. Aurreko beste hitzarmen bat, berriz, Antonio Azelai, Andres Iraeta, Julian Etxeberria eta Frantzisko Biainek egina zuten, 1860ko abuztuaren 21an⁵⁶.

Maiatzaren 19an, Julio Capgras kontratistak Mendaras harrobitik Egibide eta Loidiko lubakietarako harria garraiatzeko beste hitzarmen bat egin zuen hainbat itzainekin, hau da, Legazpiko Gregorio Zaldua, Jose I. Alberdi, Juan Zabaleta, Frantzisko Zabala eta Jose A. Murua eta Urretxuko Simon Izagirrerekin. Egia Altzolaren harrobiko harria ere hartu zuen J. Capgras-ek gero errepideak egiteko saldu zien beste kontratista batzuei⁵⁷. Zumarragan herri barruan ere aldaketa haundiak egingo ziren, ibaiaren ibilbidea aldatu, errepide eta iturri berriak jarri, pelotalekua bota... Bernardo Mendia alkateari, maiatzaren 22an, pelotalekua besterentzeko baimena eman zioten herritarrek⁵⁸ eta, hilabete beraren 27an, Jauregi etxearen suntsipena onartu zen⁵⁹.

Ekainaren 4an, Michel Ladarre Goillard Norteko Trenbidearen Zumarragako buruak, egunero 9 err. ordainduz, herrigunean egoitza hartu zuen, Altzola izenekoa. Etxe berria Altzolarena zen, bigarren solairua eta etxebehea alokatu zituen hiru hilebetero ordaintzekotan⁶⁰.

Abenduaren 3an, Zumarragako lehen zutoinetan, trenbidean bagoietan materiala garraiatzeko hiru itzain hartu ziren: Frantzisko izeneko Iraeta, Izagirre eta Zangitu⁶¹.

1862. urtea: Zumarragako errepide berria, Zubi-berri eta Loidiko iturria

Norteko Trenbidearen eraikuntzan urte hau oso gogorra izan zen Ormaiztegi-Zumarraga aldean. Pradines anaia kontratistek egindako lanak SGCME erakundeak ez zizkion ordaintzen. Gallard ingeniariak onartu bai, baina, dirurik ez zeukala eta, kontratista bere langileen lansariekin ezinik zebilen. Azpeititik, 1862ko uztailaren

⁵¹ Ibidem, 1/4695, 199-200 orr.

⁵² LUA, 341-8

⁵³ GPAH, 1/4695, 472-473 orr.

⁵⁴ Ibidem, 531 eta 553-554 orr.

⁵⁵ Ibidem, 1/4695, 568 orr.

⁵⁶ Ibidem, 211-212 orr.

⁵⁷ Ibidem, 316-317 orr.

⁵⁸ Ibidem, 276 orr.

⁵⁹ Ibidem, 297 orr.

⁶⁰ Ibidem, 298-299 orr.

⁶¹ Ibidem, 596-597 orr.

Sean idatzitako karta batean Korregidoreak Zumarragako alkateari kontratistaren alde ateratzeko eskatu zion, berak ezin zuela eta⁶².

Zumarragako erdigunean trenbideak eragin bortitza kausatu zuen. Trengeltokia eta Eitzaga tunela bitarteko lubakiak sortu zituen aldaketei buruzko informazioa da: zubi aldaketa bat, errepede berria eta urez herria hornitzen zuen Loidi iturria hondatu zuen trenbideak.

Zumarragan Eitzaga tunela egiteko lubakia iriki zenean, Loidi iturria eta baserria hondatu ziren: “. . . la casa llamada Loidi cuyo edificio desapareció con motivo de la construcción de las obras de la via ferrea del Norte”⁶³. Udalak, beste inoren zain egon gabe, bere aldetik lehen bait lehen auzoari edateko ura jartzeko urratsak eman zituen:

- 1862ko martxoaren 29an, Santiago Sarasolari aurrekontua eginarazi, enkantean jarri zuen, apirilaren 21ean, eta Azpeitiko Juan Oiarzabalek 72.900 errealetan hartu zuen.
- Urte berean Iparragirre etorbidean, parrokiaren aurrean eraiki zen Iturri-berri izenekoa. Agirrebengoa eta Uribarren ongileen omenez, 1862, dio Zumarragako iturripeko epigrafeak.

Dena dela, interesgarria da aurrekontuan ageri diren zenbait xehetasun hona ekartzea. Aurrekontuak sei atal ditu:

Bost kontzeptutan sailkatutako bi iturburuetakoa obrak	1.201 err.
Hamabi kontzeptutan sailkatutako zanga eta hoditeria	51.506 err.
Sei kontzeptutan sailkatutako erregistroa	1.250 err.
Hamabi kontzeptutan sailkatutako iturriaren eraikuntza	9.947 err.
Arropak garbitzeko arraska, harlosak eta estalpeak	13.983 err.
Badaezpabadako kopurua	2.500 err.
Batura	80.387 err.

Baldintza teknikoak, berriz, oso zehatzak eta luzeak, denetara 19ra iritsi ziren. Obraren kalitate eta berme osoa eskatzen zitzaion egileari⁶⁴. Iturri-berriko epigrafearen arabera, bi ongileri esker eraiki zen iturria. Parisen bizi zen Jose J. Uribarrenen emaitza soilik aurkitu da, hain zuzen, iturria egiteko 14.000 franko utzi zituen bere testamentuan⁶⁵. Norteko Trenbideak ere zerbait kitatu zion Udalari egindako kalteengatik. Horrela ageri da Jose Maria Aseginolazak, 1864ko urtarrilaren 26an, Idiazabaldik Galland ingeniari idatzitako eskutitzean⁶⁶. Zentzu berean, SGCME elkartearen izenean, Martin Urreiztietak alorrak erosi eta 1.913 eskudo Zumarragako Udalari eman zizkion⁶⁷.

Bestalde, SGCMEk bere aldetik zubi zaharraren ordeez berria eta errepede berria bere kabuz egin zituen.

Halare, Zumarraga ez zegoen SGCMEk egindakoarekin guztiz ados eta onura gehiago ateratzeko esperantzan Udalak aholku teknikoa eskatu zion Elorrioko R. Zabala arkitektoari herrigunean trenbideak egindako kalteen gainean. Hark, 1863ko maiatzaren 22an, “Problema, ó reclamaciones y obserbaciones por parte de la Villa de Zumarraga á la Compañía de ferrocarril” izeneko txostena eskaini zion. Zubi-berri eta errepede berriaren eraikuntza onartu eta bere abantailak aipatu ondoren, Zumarragako lubakiak 8-9 zutoinetan, hots, parrokiaren ondoan hondatutako bideen

⁶² ZUA, D,6,1,12

⁶³ GPAH, 1/4709 sorta, 227 z.

⁶⁴ Ibidem, 1/4698 sorta, 305-314 orr.

⁶⁵ Ibidem, 1/4695 sorta, 384-585 orr.

⁶⁶ ZUA, D,6,1,23

⁶⁷ GPAH, 1/4706 sorta, 193-194 z.

arazoa aztertu zuen, teileria, baserri eta Arginzaoko bidearen ordezkapentzat trenbide gainean zubi bat eskatuz.

“... no solamente es exclusivamente necesaria y util á sus vecinos sino en mucho mayor escala á la misma Compañía del ferrocarril del Norte, porque la falta de agua en ese punto de tanta afluencia de Directores y Trabajadores de la Víaferrea, hubiera motivado un aumento de jornales ó de gastos generales de la misma siempre que hubiera tenido que hacerlo por aguaderos á su cuenta, y tal vez no pudiendo, aun en este caso con las aguas de la actual fuente y de la estinguida de Loidi”⁶⁸.

Goierri eman ziren urratsak EGC enpresak obrak hartu aurretik

1862ko udaberrian, M. Lavelley, EGC enpresako burua eta Lemairc bi ingeniariak Olazti-Beasain artean trenbidean egiten ari ziren lanak ikuskatu zituzten. SGCME enpresaren proposamen bat hartu zuten, uztailearen 28an, eta irailaren 6an, “MM. Ernest GOUIN & Cie contre la COMPAGNE DES CHEMIS DE FER DU NORD DE L’ESPAGNE” izeneko txostenaren arabera, Parisen bi erakunde frantsesen arteko hitzarmena sinatu zen, non besteak beste Otzaurte-Igartza arteko obrak EGC enpresaren esku utzi eta bi erakundeek onartutako baldintzak ageri diren.

“C’est dans ces circonstances que fut rédigé et signé le marché du 6 septembre 1862.

Son premier article est ainsi conçu:

MM.E.Gouin et Cie, après avoir pris connaissance des projets dressés par les ingénieurs de la Compagnie du chemin de fer du Nord de L’Espagne, pour la section d’Olazagoita à Béasain, sur une longueur de 46 kilomètres environ, prement l’engagement d’exécuter à forfait, à leurs périls et risques et conformément aux plans, profils en long et en travers ci-annexés, tous les travaux quelconques, travaux d’art, terrassements, déblais, remblais, assainissements, consolidations, prévus et imprévus, restant à faire, de quelque nature et de quelque importance qu’ils soient, à exception de la partie centrale du souterrain d’Oazurza faissant l’objet d’une entreprise adjudagée aux sieurs Pradines frères, et les avoir entièrement terminés et mis en état de réception par l’ingénieur du contrôle du gouvernement espagnol au 1^{er} juillet 1864, moyennant la somme de 102,910,00 réaux veillon, au change de 19 réaux pour 5 francs”⁶⁹.

1862ko urtea amaitu baino lehen, enpresaren zenbait arduradun eta langilek Zegaman eta Zumarragan egoitza ipini eta hitzarmen andana sinatu zuten. Urriaren 1ean, Zumarragako pelotaleku ondoan, Sarasuanea Carlos Lemairc EGC enpresako ingeniari buruak bi urterako alokatu zuen 3.600 errealean eta, hilabete bereko 28an, Frantzisko Lizarralde Gurutzealdeko Elizoste hiru urterako errentan eman zion. Gustavo Warman ere Zumarragan jarri zen eta berari buruz hauxe dago idatzirik.

“Gustavo Warman Gefe de oficina de la casa de los Señores Ernesto Govin y compañía de Paris establecido en esta villa de cuyo destino y domicilio doy fé y dijo: que con motivo de haber sido anteriormente Empleado de la Gran Sociedad de caminos de hierro Rusos...”

Warman-ek botereak eman zizkion Parisko lagun bati lehengo Errusiko bere diru-kontuak amaitu zitzaizkion⁷⁰.

Azaroan, EGC enpresak beste hiru hitzarmen egin zituen: 2an, Urretxuko San Sebastian ermita ondoan, tailer bat jarri nahi zuen, trenbideko materiala lantzeko urtean 1.200 err. ordainduz, gainera, epea amaitzean Udalaren esku geratuko zen⁷¹; 7an, Urkiolako alorrak materialak gordetzeko hartu zituen urtean 1.060 err.

⁶⁸ ZUA, D,6,1,15.

⁶⁹ OUA, 128-IV. 1. kaxa, 3. eranskina: MM. Ernest GOUIN & Cie. . .

⁷⁰ GPAH, 1/4699, 795-797 orr.

⁷¹ UUA, D,6,1,2. Udalak, 1865/11/23an, tailerra uzteko eskatu zion EGCri, epea amaitu baitzen.

ordaintzekotan eta, 28an, Loidi izeneko alor bat 9 areakoa adreilua egiteko hartu zion 255 errealean Legazpiko Juan Mantxolari⁷².

Abenduan beste bi hitzarmen gauzatu zituen: bata 2an, Zumarragako Elisosten 148 postura adreilua egiteko eta 12 postura Loidiko bidea desbideratu eta txabolak egiteko erosi zizkion A. Zalduari posturako 90 err. ordainduz eta, bestea 15ean, Inazio Belamendia, Jose A. Elizegi eta Jose Zufiriari Ezkioko Beotegiko harrobiak errentan hartu zizkien m³ harria erreala ordaintzekotan⁷³.

EGC erakundearen 1862ko jokabideak C. Letourneur ingeniariaren buruak zeukan susmoa guztiz frogatu egiten du, ordura arte zeuden hitzarmenak eten eta aipatu enpresari trenbidearen akabera ematea Parisen erabakia zutela.

C. Letourneur-ek, 1862ko abenduaren 27an, hitzarmenei zegokienez, urrats berriak eman zituen, garai hartako planoak lehen aztertu direnean, batzuk aipatu dira. Orain, beste bat adieraziko da. Olazti-Beasain bitarteko obrak eraikitzeke baldintza plegu berriak idatzi ziren, 1862an, trenbideko lubakiak mendi malkartsuetan egiteko baldintza tekniko berriak ezarriz. Lubizi eta euriaren erasoak saiesteko, mendiari eta bere ebakerei eman behar zitzaien tratamendua, pendizen tamainuak, ubide, estolda etabar arautu zituen. Halaber, hormak, murrak eta eskoilerak egiteko araudia ezarri zituen hamahiru itenetan.

SGCMEk hitzarmenak eten zituen: haiek eteteko aitzakietako bat enpresen istripuak erabili zituen. Egia da lehen etapan, Goierri istripu ugari suertatu zirela trenbidea eraiki zenean. Zumarragan, ordea, aipatu data aurretik hildako bakarra Felix Racher frantsesa aurkitu da, hain zuzen, 1861eko ekainaren 3an hildakoen agirietan dagoena⁷⁴. Gero, 1864an, Eizaga tunelean, harri kaskarra zabaltzen ari zirenean, tunelaren zati bat erori zen hiru langilek istripu bat izan zuten Vicles 346 treneko makinista baten erruz⁷⁵ eta, 1865eko urtarrilaren 8an, Jorge Uriondo trenak hil zuen, baina beste istripurik ez da ageri⁷⁶.

Zegamako Oazurtza tuneleko Pradinez anaien hitzarmena ezik beste guztiak eten zituen SGCME elkarte kontzesionarioak eta horretan eginkizun berezia eman zitzaion Zumarragako alkateari. Donostiako Gobierno Zibiletik aipatu alkateari arazoarekiko informazioa eskatu zitzaion, SGCME enpresa eta Larroquen arteko hitzarmenaz eta bera eteteko arrazoiez. Gainera, 1863ko irailaren 20an, antzeko beste eskabidea eta, urriaren 23an, Ollivier-ek zera erantzun zuen Gobernura: eskatzen zen hitzarmena Donostiako Norteko Trenbideko bulegoan zegoela⁷⁷. Hilabete bereko 25 eta 30ean, hogeit eguneko epea emanez, Leon Seurat-ek Frantzisko Ollivier-i egindako eta amaitu gabeko lanen kontuak aurkezteko eskatu zion. Hark dokumentuak datarik ez zeramala eta hurrengoan frantsesez idazteko erantzun zion. Bi oharrak lekuko ezberdinek sinatu zituzten⁷⁸.

Zumarragan EGC enpresaren obrak, 1863-1864

1863ko martxoaren 7 eta apirilaren 11ko bi eskutitzetan, Donostiatik Zumarragako alkateari Valladolid-eko eskabide bat iritsi zitzaion, Norteko Trenbidea eraikitzeke teileria baten premia eta hura kokatzeko lurrak aipatuz⁷⁹. Zumarragan teileria

⁷² GPAH, 1/4699,, 853-854 eta 870-872 orr.

⁷³ Ibidem, 878-880 eta 914-915 orr.

⁷⁴ DEAH, M383

⁷⁵ Ibidem, D, 6,1,24

⁷⁶ DEHA,

⁷⁷ ZUA, D,6,1,20

⁷⁸ GPAH, 2,3965 sorta, 126-129 eta 2/3615 sorta, 1 or.

⁷⁹ ZUA, D,6,1,13

trenbidearen ondoan kokatu eta EGCre ardurapean lan asko egin zuen trenbiderako eta beste hainbat behar asetzeko. Horrela, Zumarragan bizi zen Frantzisko Bance teilegileak, besteak beste, bi urtetan adreilu-ekoizpen hauek izan zituen:

- 09-30ean, “Romorain y cia” enpresari 1.200 adreilu 191 errealean.
- 11-2an, berari 3.250 adreilu 518 err.
- 11-4an, Bizente Zabala urretxuarrari 92.000 adreilu 9.200 err.
- 11-12an, Torre izeneko konpainiari 1.000 adreilu 159 err.
- hurrengo urteko urtarrilaren 16an, berriz, Bizente Zabalarari 136.000 adreilu saldu zizkion 16.200 errealean⁸⁰.

Maiatzaren 22 eta 28an, Santiago Boyer Zumarragako buruak eskaturik, Migel Izagirre bertako notarioak bi txosten idatzi zituen, beraz, Gabiriako istripua gertatu aurretik⁸¹. Zumarragako lubakian ere bazegoen arriskurik, txostenetan zioenez. Arrisku handiko lanak ziren 24 zutoin ondokoak, trenbidearen maldak sakontasun gehiago eskatzen zuen eta. Aldapa handiko pendizean lanean ziharduten eta, euria egiten zuenean, lurra oso mugikorra zenez, luiziak noiznahi gauzatzen ziren. Zumarragako zutoin haietan, Larroque kontratistaren ardurapean Alexis eta Isidoro Grasset subkontratista ari ziren lanean⁸². Orduan, Julio Galland-ek 568'30-568'50 km edo 23, 24 eta 25 zutoinetako obrak erdi eginak uzteko agindu zion Grasset-i. Agindu hori, abuztuaren 21ean, lanera itzuli zenean, eman zitzaion. Hark, lehen momentuan kexatu bazen ere, obrei buruzko inbentarioa hurrengo egunean onartu egin zuen. Carlos Mitaine kontratista berriak jarraitu zituen obrak⁸³.

1864ko urtarrilaren 16an, EGCK Zumarragako lehen tunelera harria garraitzeko hitzarmena egin zuen Jose Agustin Egaña, Jose M. Guridi, Jose A. Zubia eta Ramon Azkue hargin, itzain eta harrobi-jabeekin eta beste hitzarmen batean, Frantzisko Andueza eta kideek balastroa eramango zioten⁸⁴.

Apirilaren 20an, Zumarraga tuneleko obrak eskuz aldatu ziren, Juan Maria Artiz Alzola medikoak Bernardo Mendiaren eskuetan utzi zituen, berari 20.000 err. ematekotan⁸⁵.

Maiatzaren 16an behintzat, GFAn Ramon Lizartzaburu diputatu nagusia eta Julio Galland trenbideko arduradunaren artean desadostasun nabarmen bat egon zen hiru arlotan. Hirugarren arlo hura honetan zegoen: Zumarragako Eitzaga tunelaren ahoko kalteak ezin ziren tasatu amaitu gabe zeudelako anartean. Zumarragako parrokiatik trengeltokira eta handik Urola ibaia zeharkatuz errepide nagusiko desbideratzea SGCME bere kontura eraikitzen ari zen. Diputatu nagusiaren iritziz errepide berria bi muturretan ondo txertatu behar zen lehengoarekin. Trenbideak nozituko zituen obra guztien gastuak, beragatik eraiki baitziren. Baina, bi aldeak ez ziren ados jarri⁸⁶.

Irailaren 20an, Juan Texerand kontratistak Zumarragako lubakia amaitzeko Fernando Etxeberria lankidetzan hartu zuen⁸⁷.

2.3. Norteko Trenbidea inauguratu ondorengo zenbait arazo, obra eta haien berri

⁸⁰ Ibidem

⁸¹ ZUA, E,14-09-1863

⁸² Ibidem, D,6,1,18

⁸³ Ibidem

⁸⁴ Ibidem, 1/4701, 72-74 eta 162-163 orr.

⁸⁵ GPAH, 1/4701, 247-249 orr.

⁸⁶ UUA, D, 6,1,1

⁸⁷ GPAH, 1/4701, 666-667 orr.

Trenbidea presaka inauguratu zenez gero, arazoek, obrek eta kexek luzaroan jarraitu zuten. Anartean, trenbidea erdi burututik zegoen. Zumarragan eta Beasainen bakarrik nolabaiteko trengeltoki berriak eraiki ziren, babes haundiegirik gabeak. Zumarragako trengeltokia Madril-Irun errepidetik aparte geratzen zen. Trenbideak herri, auzo eta baserrietako bide andana ebaki zuen. Konponbideak berandu iritsiko ziren. Herri guztietan arazoak eta kexak etengabeak izan ziren, baina, Zumarragakoek aparteko garrantzia izan zuten.

Trenbideko polizia: Zumarragako trenbideko poliziaren helburu nagusia kanpoko pertsona eta animaliei trenbidean eta trengeltokian sartzea debekatu eta bertako langile eta ibiltariak defendatzea zen eta Donostiatik, 1864ko azaroaren 9an, alkateari poliziak izendatzeko agindua iritsi zitzaion. Ikusi eranskinean, gobernadoreak, uztailaren 28an, zabaldu zuen trengeltokietako polizien arautegia. Aipatu polizien jokabidearekin ezin zuen edonork merkantziak jasotzera trengeltokira sartu eta jokabide haren aurrean Oñati, Bergara, Urretxu, Soraluze eta Azpeitiko enpresarioek, hau da, Pablo Iraolagoitia, Basilio Fernandez, Antonio Bonba, Pablo Adon, Jose I. Arsuaga eta gehiago kexatu egin ziren, beren garraioak egiteko gurdiak geltokian sartzen uzten ez zitzaielako⁸⁸.

Zelaikoa eta Urretxu-Zumarraga bi herrien muga aldaketa: Trenbideak Urola ibaiaren meandroa kendu zuen, aipatu bi herrien udaleremu eta mugak aldatuz⁸⁹. Auzi korapilotsu eta luzea izan zen, 1858an hasi eta XX. mendean amaitu baitzen. Ibai aldaketa hartan Urretxuk eremu gehiago galdu zuen Zumarragak baino, gainera, geltokia Zumarragan oso-osorik kokatuko zen. Aldaketak Zelaikoa eta Jauregi errotan gauzatu ziren. Hori egin aurretik, Urretxuk eremu aldaketa mugarritu nahi zuen, baina, SGCMEk bereahalako batean egin zituen egin beharrekoak. Planoak eta eremuak neurtzeko adituek parte hartu arren, bakoitzak bereari eutsi zion.

Zelaikoa Urretxukoa zen eta Jose A. Alberdi jabeak eraikuntza eta alor batzuk SGCMEri saldu zizkion eta bere beste alorrak Urolaren eskuin aldean, Zumarraga aldetik geratu ziren, Urretxutik urruti aldendurik. Alberdik administratiboki bere jabetza Zumarragara pasatzea eskatu zuen. Urrats horrek arazoa oraindik gehiago katramilatu zuen. Auzia hain setatsua eta luzea gertatu zen, ze, 1892an, Madrilgo Gortean Zelaikoa Urretxutik segregatu zen eta, XX. mendean, bi herrien mugariak ezarri ziren.

Eitzaga tuneleko obrak, 1865: Juan Magnet, Francisco Ancel eta Andres Chaumeton hiru kontratistek, 1865eko urtarrilaren 10ean, Zumarragako Eitzaga tunela eta ondoko obrak amaitzea hartu zuten eta handik gutxira, 26an, Magnet-ek Bautista Vernet-en eskuetan bere partea utzi eta Frantzira joan zen⁹⁰. Goierriko zenbait dokumentu eta erroldatan ageri denez, 1864an, trenbidea inauguratu arren, kanpoko langilek lanean jarraitu zuten.

Zumarragako Artiz lantokia eta Norteko Trenbidea, 1860-70 hamarkadetan: Garai haietan, Norteko Trenbidea eraiki zenean, bazen Zumarragan orrazi eta zumezko altzariak egiteko lantoki bat, hau da, Artiz-en lantokia. Bere kokapena Zumarragako tren-geltoki ondoan zegoenez, obrak egiteko baimena behar izaten zuen. Hura lortzeko ahaleginetan ibilitako zazpi eskabide aipatuko dira. Zumarragako dokumentu haiek beste hainbaten aipamena daramate. Artiz-ek bi etxe zituen tren-geltoki ondoko (8. zutoineko) pasonibelean. Zortzi bat metroko tartea

⁸⁸ ZUA, D,6,1,25

⁸⁹ Prada, Antonio, 1987, *LOS LÍMITES ENTRE ZUMARRAGA Y URRETXU. PROBLEMAS HISTÓRICOS*, ZUA, C-5-I-1-9. Apunte interesgarriak dira xehetasun guztiak jaso ahal izateko.

⁹⁰ GPAH, 1/4702, 68-69 orr.

zeukaten biek eta, hura estaltzeko baimena lortuz gero, lantokiaren hedapena zetorkien.

1861eko abenduaren 29an, Gasteizko eskutitz batean, Norteko Trenbideko buruak alkateari erantzuna eman zion. Lantokiaren lehen aipamena bertan egin zen, gainera, trenbidea obratan anartean zegoelarik. Aurrez, abenduaren 4an, Juan Mari Artiz urretxuarrak Donostiako Obra Publikoetako baimena lortua zuen.

1865eko apirilaren 27an, Madrildik Zumarragako alkateari egindako karta batean zera ageri da: Norteko Trenbide ondoko etxeek su hartzeko arriskua aurreikusi eta neurriak jartzeko, aipatu etxeetako plano topografikoa eskatu zitzaion Udalari, trenmakinek inguruko etxeak kiskaltzeko beldur ziren nonbait.

1865eko maiatzaren 22ko eskutitzean, Madrildik Zumarragako alkateari egindako beste eskutitz batean, geltoki ondoan aroztegi bat zegoela ageri da. Artiz familiak hamar bat urte beranduago baimena lortu gabe zeukan. Bigarren aldi hartan, Justo Artiz semeak, 1876ko abuztuaren 2an, berriro Zumarragako alkateari eskaera bera egin zion, bi etheen tartea estali eta lantokia haunditzea, alegia. Bi egun beranduago, honako eskutitz adierazgarri hau idatzi zion Jose Maria Epelde alkateak Gasteizko Norteko Trenbideko buruari.

“Alcaldia de la Villa de Zumarraga. (Zumarragako sigilua)

Al remitir á V. la solicitud que con fecha de 2 del corriente ha tenido á bien presentarme el Sr. Dⁿ. Justo de Artiz vecino de esta villa, pidiendo autorización para ejecutar una obra que tiene por objeto unir dos edificios situados, uno de otro á ocho metros de distancia, y frente del paso á nivel del piquete n^o 8 en jurisdiccion de esta villa con las demas particularidades que se espresan en la misma solicitud, debo manifestar á V que por mi parte no encuentro inconveniente alguno en acceder á la peticion del Sr Artiz; por el contrario deseo vivamente que se lleve á efecto la obra proyectada, tanto porque en nada perjudica á la via ferrea, como porque es una mejora local que tiende palpablemente á desarrollar la industria fabril, de que han de recibir muchos beneficios la Empresa del ferro-carril y tambien esta villa; por cuyos poderosos motivos suplico á V conceda de su parte la autorizacion que solicita el referido Sr Artiz, y que ademas ponga un informe favorable para sus Jefes superiores gerárquicos á quienes competa consientan en la realizacion de tan plausible idea; y espero del celo, actividad y benevolencia de V accederá á lo que se pide, con la brevedad que requiere el caso.

Dios que á Vnsa.

Zumarraga 4 de Agosto 1876. El Alcalde, Jose M^a Epelde. (Errubrika).

Sr. Filion Gefe de seccion del ferro-carril del Norte. Vitoria”⁹¹.

Azkenik, 1876ko irailaren 9an, Zumarragako alkateari zuzendutako eskutitz batean Artiz-en lantokiko obrak eraikitzeko baimena eta onespina etorri zen Madrildik.

Zumarragan berealdiko kexak, 1863-1874: Elorrion, 1863ko maiatzaren 22an, R. Zabala adituak, Zumarragako Udalak eskaturik, Norteko Trenbideak eragindako kaltei buruzko txosten zehatza, “borrador” deitua gauzatu zuen. Txostenaren xehetasunetan gelditu, Zumarraga herrian trenbideak sortu zuen lubakia eta bere ondorio luzeak adieraztea komeni da, aldaketa sakonak bertan eman baitziren.

Zabala adituak, Udalak eskaturik, lehenik txostenaren helburua finkatu zuen, hau da, “despues de enterado de las reclamaciones que dicha comunidad tiene sobre espropiaciones de valores de terrenos y otros objetos y daños y perjuicios que se le interregan por la Compañía del ferro carril del Norte y para que se proceda á su reconocimiento clasificacion mediacion y valoracion con arreglo á derecho”. Arazoa bost puntutan borobildu eta bere iritzia eman, amaitu zuen zirriborroa⁹².

1. Madrid-Irun errepideko Udalaren Zubiberriren tasaketa eta ordezkua egitea.

⁹¹ ZUA, D,6,1,14

⁹² Ibidem, D,6,1,15

2. Zubiberritik Zumarragako parrokiara bitarteko errepidearen eraiketa, horretarako neurri eta baldintzak ipiniz.
3. Zumarragan, trenbideko lubakia egin zenean, Arginsaoko gurdibidea mozteak baserri, teileri eta mendiarekiko lokera guztiak eten zituelako, horien guztien balorazioa.
4. Loidiko gurdibidearen mozketak eta bere tasaketa.
5. Loidi iturriaren desagertzearekin lau alderdi kontuan hartu ziren:
 - 5.1. Loidiko ur osasuntsuen balorazioa:
 - 5.2. Eitzaga auzoko 30 familien etxeko ura izatearen balorazioa.
 - 5.3. Zumarragak ur-hornikuntza berria 80.000 err. gastatu zituen.
 - 5.4. Trenbideko langile eta karguek beren lantoki eta etxeetan ura izatea Zumarragako Udalari zor zioten.

Bestalde, kexa haien aurrean, trenbideko adituek emandako erantzun arin eta eskasak entzunik, konponbideko lokarri guztiak eten eta arazoa oinarri berri batzuetan planteatzea eskatu zuen Elorrioko adituak, hau da, lege-gizon batzuen eskuetan gaia ipini eta aurrera eramatea.

Urte berean Fomentotik eskutitzak heldu ziren Zumarragara, baina, konponbiderik ez, luzapenak baizik

Zumarragan beste obra batzuen artean, errepide berri bat eraiki zen parrakiaren ondotik geltokira, hain zuzen, gaur Iparragirre ibilbidea eta Sekundino Esnaola kaleak osatzen dutena. Horrela Zumarragako geltokiaren isolamendua amaitu zen, Urretxuko estafeta ezarian-ezarian errepide berrira aldatuz, berriro Zubiberrin 1 Errepide Nazionalarekin elkartzeko. Santiago Sarasolak, 1874an, fakturak egiaztatu zituen. Lau multzotan banaturik aurkeztu zituen: lurak besterentzeagatik 6.584'61 err., obregatik 26.914'66 err., obrek sortutako kalteengatik 2.469'24 err. eta errepidea eraikitzeagatik 9.545'62, guztira 45.514'12 err.⁹³.

Bestalde, trenbideko nibeiko pasoen gainean karta anitz jaso ziren Zumarragan, adibide bat ematearren, 1865eko ekainaren lehen, herriko berrogei bat biztanlek Udalari aurreko urtean onartutako eskabidea betetzeko eskatuz, "en el piquete 8 paso superior de tres metros", geltoki ondoko zubia, alegia.

Bigarren hamarkadan, 1870ekoan alegia, kexa berek jarraitu zuten. Zumarragako alkateak, 1871ko maiatzaren 19an, Norteko Trenbideko zazpi obren gaineko kexak berriro zizkion gaiaren arduradunari; zazpi urte zeramatela agindutakoaren zain esanez:

"Situacion Piquetes	Clase de Obras
8	Paso superior de tres metros. Camino lateral á la izquierda desde la Iglesia hasta el puente nuevo.
10'5	La carretera ligeramente desviada.
17'30	Desviacion para hacer pasar un camino por encima del tunel.
20'80	Paso inferior de tres metros con alcantarilla de igual luz por debajo.
22'30	Paso superior de tres metros.
22,39 á 24'40	Desviacion á la izquierda.
27	Paso á nivel".

3. Zumarraga trenbide berrien lokarri

Norteko Trenbidea eraikitzea asko kostatu bazen, bera garatzeak eta bere funtzionamenduko normalkuntzak urteak behar izan zituen. Gipuzkoa, garai hartan, nekazal herria zen, ez zegoen industria eta merkatu modernorik. Zeuden ale

⁹³ GAO, JD IT, 924,2

bakarrak, tailer familiar urriak garatu ahala, trenbidearen garraioa erabiltzen hasi ziren, apurka-apurka. Hirugarren Karlistada amaitu artean, ez zen trenaren funtzionamendua normalizatu Gipuzkoan, noski era berean ez Goierrin ere. Ideia eta proiektu berriak piskaka agertu ziren, 1880. hamarkadan.

3.1. Zumarraga Gipuzkoako trenbide sareko erdigune

Norteko Trenak trenbide zabala zuen. Bera eraikitzekeo gastuak, alorrak besterentzeak, mantenimendu eta baldintza tekniko berezien jabe izateak kostu haundiko garraio-bide egiten zuen. Bizkaia eta Gipuzkoan beste mota apalago bateko trenbideak planteatzen hasi ziren. Trenbide arinago, estuago eta malguagoak.

Bilbo-Tudela Trenbide zabalak ere Nortekoaren antzera erdizkako etekinak ateratzen zituen. Bilbon industria modernoaren hasiera hemen baino lehenago gertatu zen, baina, Gipuzkoarekin ez zeukan trenbidezko komunikazio zuzenik. Bilbo-Durango trenbide estua, 1883an irekia, ordea, arrakastatsua suertatu zen. Bi urtetan eraikia izan zen, ibilbide laua eta oztoporik gabea zen. Bere eraikuntza merkea eta hasiera-hasieratik etekinak ikusten zitzaizkion.

Durango-Zumarraga Trenbide estu berria

Durango eta Debarroko industrialak animaturik bilerak egiten hasi ziren. Iadanik, bailara haietan armagintzako fabrikek lanean ziharduten. Baziren fabrika txiki familiarak Zaldia, Ermua, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Bergara eta Antzuolan⁹⁴. Aipatu industrialen interesei Arteaga, Elorrio, Zaldibar, Urberoaga, Altzola, Santa Ageda, Eskoriatza eta Aretxabaletako banueteen interesak elkartu zitzaizkien. Gainera, proiektua idatzi zuen Frantzisko Igartuak dioenez, Bermeo eta Ondarruko arrantzaleen merkatua, salmentak kontuan izatez gainera, Bilbo eta Donostiaren arteko inkomunikazio oztopoak aintzakotzat hartu ziren, Bilbo-Miranda-Zumarraga-Donostia edo alderantziz egin behar baitzuten bi euskal hiriburu-tako bidaiariek. Erruz laburtuko zuen ibilbidea Durango-Zumarraga proiektu berriak. Aipatu idazlearen arabera, Durango-Bergara-Oñati-Brinkola aukera ere aztertua izan zen. Oñatik garrantzia izan arren, hautapen hura baztertu egin zuten.

“Compañía del Ferro-carril de Durango a Zumárraga” izeneko elkarte sorturik zegoen, 1884ko maiatzaren 25ean, Bilbon. Ia urtero bere txostenak utzi zituen. Haietan oinarriturik, Durango-Zumarraga Trenbidearen lehen urteetako urratsak hemen adieraziko dira. Elkarte honela osaturik zegoen. Lehendakaria Frantzisko Igartua eta bokal administrari hauek: R. García, M. Cortazar, E. Aznar, J. Iturriar, F. Biardean, M. Elorduy, J. Delmas, J.M. Solaun, G. Iturriaga, C. Jacquer eta J.L. Iriondo.

Durango-Zumarraga proiektuaren deskribapena eta aurrekontua

Trenbide estua, Bilbao-Durangoen jarraipena eta gaurko Euskotrenaren adarra izango zen. Proiektuan trenbidearen luzera zatitan banatua, itsasoarekiko altuerak, lur-zoruaren izaera, trenbidearen oztopoak, paso-nibelak, trengeltokiak eta eraikuntza osoaren aurrekontua ageri dira.

Durango-Zumarraga Trenbide estuak 53.038 m izango zituen hiru zatitan banaturik: Durango-Ermuak 20.588'08 m, Ermua-Bergarak 17.686'62 eta Bergara-Zumarragak 14.764'42 m. Maltzaga-Elgoibar 4'90 km-ko adarra ere eraikiko zen. Durangon 110 m-ko itsasoarekiko altueratik Areitiora 310 m-ra igoko zen, handik Maltzagara 85

⁹⁴ Mitxelena F.G. 108 F-34. “Memoria del Proyecto de construcción del Ferro-carril de Durango por Descarga a Zumarraga”, 1884, Bilbao, J.F. Delmas. Ikusi eranskinetan urte hartako datu ekonomikoak.

m-ra jaisteko, berriro, Bergaran 162 m-ra igoko zen, Deskargan 430 m-ra igotzen jarraituz, eta azkenik, Zumarragan 356 m-tan amaituko zen.

Lehen zatian, Durango-Areitio artean soro nahiko zelaiak zeharkatuko zituen, ibilbide osoan besterentzeko garestienak. Bi probintzien muga 21 km-an zegoen. Bizkaiatik Izagara Areitio tunel baten bidez igaroko zen, zuhaitz askoz osatutako maldan sartuz. Maltzaga 26 km-an zegoen. Maltzaga-Bergara artean, Deba ibaiaren ondoan, aldapa txiki eta tunelik gabe murrueen bidez Bolua erreka arte trenbidea eraiki zitekeen. Bergaran, 31-39 km, Deba ibaia eta soroak zeharkatu eta Antzuolako ibaiadarraren eskuinetik Deskarga beste tunel baten bidez iritsiko zen Zumarragara. Sei aldiz beste hainbeste errepide garrantzitsu zeharkatuko zituen sei pasonibelen bidez: Durango 0'6 km-an, Ermuan 18'4 km-an, Maltzagan 25'3 km-an, Bergaran 35'6 km-an Deskargan 49 km-an eta Zumarragan 52'7 km-an. Trengeltokiei zegokienez, berriz, 1. mailako bi, 2. mailako hiru eta 3. mailako bost apeadero izango zituen trenbide berriak. Durango lehendik zegoena eta Zumarragan, Norteko Trenbidearen ondoan, Baskongadoen geltoki berria eraikiko zen. Eibar, Elgoibar eta Bergaran 2. mailakoak eta Zaldua, Ermua, Maltzaga, Soraluze eta Antzuolan 3 mailako apeaderoak eraikiko ziren.

“PRESUPUESTO

Concepto	Pesetas
Expropiación	299.583'76
Explanación	1.293.201'36
Obras de fábrica	387.282'81
Túneles	199.000'00
Estaciones	335.815'49
Gastos y casillas de guardas	71.238'24
Material fijo, vía.	1.100.943'30
Pasos de nivel y variaciones	47.730'00
Material móvil	462.550'00
Accesorios generales	30.928'00
Telégrafo eléctrico	25.421'82
Gastos imprevistos, el 2%	84.865'90
Administración y dirección, el 4%	169.731'73
Suma		4.497.892'47

Bilbao, 15 de Mayo de 1884

Francisco de Igartua

Presidente del Consejo de Administración”⁹⁵

Bigarren Ohiko Batzarra, 1886

Durango-Soraluze arteko alorrak besterendurik, baina, Bergara-Zumarragakoak besterentzeke zeuden. Durango-Zaldibar zatiko obrak amaiturik aurkitzen ziren. Bizkaiko Foru Aldundiak 122.000 pezeta mailegatu zituen, interesik gabe hogeitertan itzultzekotan. Bizkaian amaitutako zatia martxan jarri zen. Maltzaga-Bergara arteko obrak, 569.148 pezetatan eman ziren. Bergara-Zumarragako obrak egiteko

⁹⁵ Ibidem, ikusi eranskinetan datu kontableak.

zortzi kontratista aurkeztu ziren eta merkeen eraikiko zuenari 300.000 pezetatan eman zitzaizkion⁹⁶.

Hirugarren ohiko Batzarra, 1887

Bergara-Zumarragako alor besterentzea amaiturik, Antzuola-Zumarragako ibilbideko proiektuari hobekuntzak egin zitzaizkion sei tunelen bidez. Tunel batzuen luzerako neurriak ageri dira: Eibarko tunelak 248 m, Deskargakoak 612 m eta Santa Marinakoak 613 m izango zituzten. Barne merkatuan, lehen aldiz, Bizkaiko Labe Garaietan 100 tona errail bakoitza 16.500 pezetatan eta zenbait material mugikor erosi ziren, baina, trenbideko kotxe, furgoi eta bagoiak Belgikatik ekarri ziren.

Belgikatik ekarriko zen materiala

Kopurua	Kontzeptua	Maila	Prezioa	Frankoak
2	Tren-kotxe	1.a	6.100	12.200
2		1-2.a	6.220	12.440
2		2.a	4.600	9.200
12		3.a	4.300	51.600
6		3.a Heberlein frenuarekin	4.575	27.450
6	Furgoi	Heberlein frenuarekin	3.280	19.680
6	Bagoi	Merkantzientzat itxiak	2.350	14.100
14		Merkantzientzat irekiak	1.500	21.000
30	Plataforma	Merkantzientzat	1.300	39.000
	Batura			206.670

Ikusi eranskinetan urteko ustiapen datuak. Funtzionamenduan zegoen zatiaren eta obretako kopuruak dira. Dena den, Deskargako tunelek ezusteko oztopoak ekarri zizkien.

Laugarren Batzarra, 1888

Trenbidea Bergaraino funtzionamenduan jarri zuten, 1888ko uztailaren 1ean inauguratu baitzen. Soraluzen “Fábrica de Cañones” fabrikara errepide bat eraiki zen, merkantziak garraiatzeko. Bergarako trengeltokiko errepide berria eraikitzen Udalak ez zion konpainiari lagundu, hark erdira gastuak egitea proposatu arren. Lehengo errepide eskasarekin konformaturik gelditu ziren. Urte hartan, Deskargako obra neketsuak amaitu nahi zituzten. Bergara-Zumarraga ibilbide aldapatsurako “Mallet” bi lokomotora erosi zitzaizkion Belgikako “Marcinelle et Couillet” fabrikari, bakoitza 33.400 franko ordainduz.

Batzarrean ez-ohiko gastuen berri eman zen, besteak beste, honako hauek: Santa Marina izeneko tunela berrestaltzea 47.000 Pta, Eibarko tunelaren ahoan luizia 40.000 Pta, Deba ibaiako Karkizano lekuan luizia 30.000 Pta Bergarako geltokiko errepidea eta beste batzu 70.000 Pta, Antzuolako tunel batean 170.000 Pta eta Deskargako tunelean 190.000 Pta, oro har bi lokomotorak barne 700.000 Pta. Zorrak kitatzeko obligazio berriak enkantean jarri eta berehala batean jendeak dirua jarri zuen⁹⁷.

Boskarren Ohiko Batzarra, 1889

Trenbide osoa, hots, Durango-Zumarraga amaitu zen urte hartan. Ez-ohiko gastuen eta zenbait kontratistekiko eztabaiden berri eman zitzairen akzionistei. Zaldibar-Maltzaga-Elgoibar trenbidea eraiki zuen Sebastian Ostolazak 105.000 Pta eskatu zituen, hiru adituk tasatu eta 70.862 Pta jaso zituen. Soraluzeko trengeltokiko errepidea 39.000 Pta kostatu zen. Deskargan, Antzuolako Perulde lubakian, 33 km-an eta Zumaeta lubakian, 38 km-an 42.707 Pta gastatu ziren aurrekontutik at.

⁹⁶ Mitxelena F.G. 408 F-42. Ikusi eranskinetan urte hartako datu ekonomikoak.

⁹⁷ Ibidem, C-408 F-54. Ikusi eranskinetan urte hartako datu ekonomikoak.

Deskarga-Zumarragako obrek 327.179 Pta-ko aurrekontua erruz gahinditu zuten eta kopuru osoa 509.523 Pta -ra iritsi zen, beraz, 255.481 Pta gehiago⁹⁸.

Seigarren Ohiko Batzarra, 1890

Trenbidea amaitu eta ibilbide osoan funtzionatu zuen lehen urte ekonomikoa nahiko ona izan zela aitortu zuten. Jendearen artean zabaldu ziren alarma batzuen berri adierazi zen batzarrean, alegia, istripuak, deskarrilamenduak izango zirela. Zorionez ez zen aurreko urteetan ibilbide osoan istripu bat bakarra ere gertatu. Akzionistek proiektu berriak adierazi zitzaizkien: alde batetik, Bilbo-Durango eta Durango-Zumarraga bi elkarteak batzeko asmoa eta, beste alde batetik, Elgoibar-Donostia eraikitzea, oso onuragarria izango zelakoan luzapen hura. Beste hobekuntza batzuk ere proposatu ziren.

“Se ha estudiado y está a punto de firmarse un contrato de combinación de arrastres con la Compañía del ferro-carril del Norte, en virtud del cual se facilitara el trasbordo de mercancías de la estación de Zumarraga, que contribuirá por consiguiente á disminuir los gastos de transporte y el aumento natural del movimiento⁹⁹”.

Zumarragako Baskongados-etako trengeltokia Juanjo Olaizolaren arabera Hipolito Olaizola kontratistak eraiki zuen. Bi solairu zituen, eta hirugarren bat ganbaran. Lehen solairuan zerbitzuko egoitzak zeuden, hau da, txarteltegiak, geltoki buruaren gela eta abiadura handiko bidaietarako ekipajeak eta merkantziak fakturatzeko gela. Goiko solairuak langileen etxebizitzak ziren. Geltokiko eraikinaren fatxadak inguruko baserrien tipologia oinarriturrik zeuden¹⁰⁰.

Zumaia-Zumarraga beste trenbide estu berri bat

Urola Trenbidearen lehen proiektua, 1886an, Pablo de Alzolak egin zuen. Inor ez zen ausartu obra haiei aurre egiten. Berrero, 1896-1909 urteetan, Urolako Tranbia elektrikoaren aldeko apustua egin zuten bailarako udalek. Behin betiko proiektua, 1920. urtean, azkenik onartua izan zen eta zenbait erabaki hartu zituen GFak¹⁰¹.

“1. Kontzesiorako baldintza-pleguen 5.artikuluan eskatzen zen 683.070'15 PTAko zenbatekoa jartzea.

2. Trenbidea egitea bi zatitan banatzea zuinketa, erreplanteoa egiteko, eta lan hori zati haietako bakoitzean brigada baten zeregina izango zela.

3. Zuinketa egiteko lanetarako beharrezko zen materiala, bai eta Ford markako bi auto ere erosten hastea.

4. Linea elektrifikatzeko proiektuak eskatzea industriariei.

5. Behin-behineko kreditu-kontu bat irekitzea, Aldundiaren izenean, Trenbideari aurre egiteko lehenengo baliabideak erraztu ahal izateko.

6. Trenbidearen bulegoak prestatzeko beharrezko ziren lokalak bilatzea”.

Obra haiek, 1921ean, enkantean atera eta, 1925. urtearen amaiera aldera, amaitu ziren. Obrei zegokienez, Jose Bautista Arzubiak 16 zubi eta 18 tunel eraiki omen zituen¹⁰². Urola trenbidearen egileak, ordea, ez zuen beraren inaugurazio eguna

⁹⁸ Ibidem, C-408 F-43. Ikusi eranskinetan urte hartako datu ekonomikoak.

⁹⁹ Ibidem, C-408 F-65, 8 or. Ikusi eranskinetan urte hartako datu ekonomikoak. Ikerketa hau amaitu ondoren, Juanjo Olaizolak argitaratu berria du “TRENBIDEA BILBOTIK DONOSTIARA, Trenbidearen 125 Urte Durangon”, 83-126 orrialdeetan azterketa sakonagoa bertan aurki dezake irakurleak.

¹⁰⁰ Arteché Elejalde, Ignacio eta beste batzuk, 2002, *Urolako Trena, 1926-1986*, Azpeitiko Udala, 351 or.

¹⁰¹ Ibidem, 132 or.

¹⁰² Ibidem, 34 or.

gozatu, aurrez hil egin zen eta¹⁰³. Trenbide berriaren kostu erreala adieraziko da ondoren.

“Trenbidea egitearen kostu osoaren kalkulua. 1926ko uztaila¹⁰⁴

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA (PTAk)
Gastu orokorrak	2.605.945'71
Altzariak eta bulego-materiala	15.000'00
Desjabetzak	1.204.691'92
Lur-berdinketak	3.481.912'92
Fabrikako lanak	1.768.481'04
Tunelak	3.179.204'41
Geltokiak	1.932.559'79
Zaintzaileen etxetxo eta garitak	110.253'27
Material finkoa (trenbidea)	2.737.947'36
Geltokietako materiala	430.750'00
Tren-pasabideak	455.290'06
Material mugikorra	2.997.167'63
Osagarri orokorrak	142.763'00
Telefonoa	77.000'00
Ezusteak	539.743'50
Aireko linea	1.446.938'03
Material elektrikoa eta erreserbako zentrala	1.040.374'52
GUZTIRA	24.166.023'16

Iturria: T.E.M. Administrazio Kontseiluaren Aktak (1925-1926), 237 or.”

Zumarragako geltokia haunditzea (1930-1938) eta Urola ibaiaren dragaketa

GFAk Urulako trena eraiki aurretik, lehen esan denez, Euskotrenek bazuen beste geltoki bat Zumarragan. Arazoak zeuden leku eskasian eta zerbitzuen koordinazio faltan. Arazo haiei erantzuteko, 1930. hamarkadan, bilera, proiektu eta obrak egin ziren. Urola ibaia estali, geltoki ezberdinen nasak zabaldu, biltegi eta kotxetegi berriak eraiki ziren. Azpiegitura haren aurrekontua 2.032.925 Pta-ra iritsi zen eta Gerra Zibilarengatik obrak atzeratu egin ziren. L. Odriozolaren arabera, obrak ez ziren egin 1938ra arte. Gainera, 1946ko uholdeek ibaiaren dragaketa eragin zuen¹⁰⁵.

Zumarraga-Legazpi Urola Trenbidearen adarra

Legazpiko udalak aspalditik, bederen 1922 urtez gero, proposamen eta eskari ezberdin gauzatu arren, Gerra Zibila igaro arte ez zuen bere ametsa lortu, hots, Urola tranbia herriraino eramatea. Azken tramitazio baikorrak, 1935eko maiatzean, erdietsi zituzten, Urola trenbideari Legazpiko adarrean 1'00 eta 1'674 metro zabalera karril bat luzatzeko¹⁰⁶. Trenbidearen luzapen hura “Cía Constructora ABC” enpresak egin zuen eta hiru errail ezarri zizkioten, bertatik hiru zabalera ezberdineko bagoiak (RENFE, Baskongadoak eta Urulakoak) mugitzeko lurrunezko eta dieselezko motorrez¹⁰⁷. Egunero, 1954an, PESA lantegitik ateratzen zen bagoi-kopurua hazi egin zen eta zirkulazioaren beharrei erantzuteko Zumarragan zerbitzuak hobetu egin

¹⁰³ Ibidem, 138-139 orr.

¹⁰⁴ Ibidem, 144 orr.

¹⁰⁵ Ibidem, 174-175 orr.

¹⁰⁶ Ibidem, 152-155 orr.

¹⁰⁷ Herreras, Beatriz eta Zaldua, J., 1997, *Industri Ondarea Legazpin*, Lenbur Fundazioa, 85-86 orr. Jose Luis Ugarteri lerro hauen bidez berak eskaini duen laguntzagatik eskerrona adierazten zaio.

ziren. Urolaren aipatu adarrak 1969ra arte iraun zuen eta gero zuzen-zuzenean RENFERen bagoietan garraiatzen zituen merkantziak PESAk¹⁰⁸.

4. Trenbideen eragina Zumarraga Udalerrian eta Euskal Herrian

Idazlan honen hasieran, 1860 aldera, Zumarragako egoera soziala eta demografiari buruzko apunte batzuk, adibidez 1.393 biztanle zituela adierazia da. Orain trenbideek, XIX. mendean, nolako ondorioak ekarri zituzten azalduko da.

4.1. Zumarraga Udalerriaren bilakaera, XIX. mendean

Zumarragan trenbideak eraiki, geltokiak zabaldu, herri-mugak aldatu, oro har, garraibide eta ostatu berriak garatu heinean, komunikabideek aldaketa sakonak ekarri zituzten Udalerrian eta zumarragarren artean.

Goierrin Norteko Trenbideak zeharkatu zituen herrietako biztanleria kontuan izanik, 1860-1900 berrogei urteetan, alde nabariak ageri dira. Trenbideak ez zuen era berean udalherri guztietan eragin, nahiz eta aipatuko diren herri guztietan garraibide hura iragan. Datuak ikusi, erkaketak egin eta ondorioak atera ditzagun.

Goierriko zenbait udalerriko biztanleriaren bilakaera, 1860-1900

Udalerria	1860	1877	1887	1900
Zegama	2.487	2.193	2.102	2.007
Ezkio-Itsaso	1.742	1.632	1.446	1.396
Beasain	1.448	2.144	2.030	1.932
Zumarraga	1.393	1.736	1.867	2.034
Legazpi	1.320	1.303	1.310	1.246
Gabiria	1.074	993	924	836
Urretxu	989	1.013	1.076	1.110
Ormaiztegi	722	618	626	639

Ormaiztegi, Gabiria, Legazpi, Ezkio-Itsaso eta Zegamako biztanleria XIX. mendearen azken aldiak apur bat murriztu egin zen. Bestalde, Urretxu, Beasain eta Zumarragan hazkundeak gora egin zuen, batez ere Zumarraga eta Beasainen. Aldi hartan, populazioa Zumarragan ia bikoiztu egin zen eta bere nekazal itxura aldatzen hasi zen. Zumarragari buruz, 1900. urtean argitaratu zen liburuan, etxe berrien simetria eta herri-aldaketaren dotorezia azpimarratu zuen egileak¹⁰⁹. Kale berriak, Zelay-Aristi, Udaletxea, Ospitala, Eskolak . . . eraiki ziren. Aipatu historialariak efemeride moduan hauxe kontatu zuen.

“Zumarrága ha variado casi totalmente en la segunda mitad del presente siglo; sólo así se comprende y explica el caso de que habiéndose vuelto á su pueblo natal un hijo de estas provincias, tras larga ausencia, al encontrarse en la estación del ferro-carril de este pueblo, preguntára sorprendido si acaso era aquella la villa de Zumárraga¹¹⁰.”

4.2. Hazkunde industrialaren lehen adierazgarriak Zumarraga aldean

Trenbideek Zumarraga eta bere ingurumarian izan zuten eragina nabaria izan zen. Halere, lehendik Debarroan eta Urola aldean baziren burdinolak, esaterako Kataguan, Eibar eta Elgoibarren dozena bat fabrika, gehientsuenak armagintzari emanak, Bergarako ehundegiak, eta azkenik, Azkoitian, 1840ko hamarkadan sortu ziren apargata eta ehungintzako fabrikak¹¹¹. Baina, Norteko Trenbide eta gerora EuskoTren deituko

¹⁰⁸ Arteché Elejalde, Ignacio eta beste batzuk, 2002, a.o., 155 or.

¹⁰⁹ Beláustegi, Ignacio, 1900, *Noticia Histórica de la Villa de Zumárraga*, 20. or.

¹¹⁰ Ibidem, 18 or.

¹¹¹ Pérez-Iscar, Isaías, 1901, *LAS GRANDES INDUSTRIAS: estudio del desarrollo de la industria española en todas sus manifestaciones*, Guipúzcoa, San Sebastián.

zitzaientzen XIX. mendean enpresa moderno ugari erakarri zuten bai Zumarraga bertara bai inguruko herrietara.

Apunte hauetan, Zumarragan sarritan agertu zaigu “Artiz y Comp” enpresa obrak egin nahian. Azken Kaslistada ondoren, baimena lortu eta fabrika modernizatu zuen leihakorra bilakatzeko. Ekimen anitzeko enpresa hartan bertan 100 langilek orraziak, zumezko altzariak, danbor eta panderoak egiten zituzten. Enpresa hark, ordea, bazuen ezaugarri berezi bat, eskulan kostoso eta emankorra etxeetara zabaltzen zuen.

Neurri haundiko beste lantegi bat hodigintzan hasi zen Zumarraga erdi-erdian, bere orubeak 2.000 m² bazituen eta makinaria urez eta lurrinez mugitzen zen. Donostiako “Destileria Modelo, Amiel” lantegiko ondorengoa zen DON IGNACIO AMIELEK ere Zumarragan, mendearen amaieran, hiru nabeko lurrindegia eraiki zuen. Benetan eredugarria garai haietarako.

“A 80 metros próximamente de las estaciones del ferrocarril del Norte y del Central de Vizcaya, elevase un precioso edificio de tres grandes naves longitudinales, teniendo adosada al fondo otra lateral”¹¹².

Lurrindegia hartan pattar, koñak, txanpaina eta mota guztietako likoreak lantzen ziren. “D. Ignacio Amiel ha satisfecho de derechos provinciales, solo en la provincia de Gupúzcoa, 60.000 pesetas” dio aipatu autoreak.

Zumarragatik at ere, esaterako Soraluzen, 1860ko hamarkadan “Placencia de las Armas, Fábrica de Cañones y Projectiles” izeneko lantegia eraiki zuten; 1890ean, berriz, Legazpin Pedro Segurak bi lantegi ireki zituen: alde batetik, “Gran Tejería Mecánica” teila, adreilua, baldosa eta hodiak egiteko eta, bestetik, “Fábrica de Cartuchos” kartutxoak, lau metrotara “confetti” izeneko jaurtigailuak, enbalaje eta zepoak gauzatzeko lantegia. Azkoitia eta Azpaitian ere altzariak, oihalak eta txapelak egiteko fabrikak ipini zituzten Hurtado, Alberdi, Epelde eta Larrañaga enpresa-gizonek¹¹³

4.3. Zumarraga euskal komunikabideen erdigune, XIX. mendean

Madril-Irun errepidean diligentzien zerbitzua egunero zegoen, eta, 1780 urtez gero, Urretxu-Zumarragatik igarotzen zen. Madril-Paris tren-zerbitzuek ere, 1864 urtez gero, egunero funtzionatzen zuten. Komunikabide berriek pentsio, ostatu eta hotelak eraikiarazi zituzten.

“Herria hazteaz gain, ostatuak eta hotelak ere orduan ireki ziren. Aurrenekoa Fonda Marquina deiturikoa izan zen. Gregorio Markinaren ardurapean. 1865 urtean Hotel Altuna sortu zen, Eugenia Zangitu etxeokoa zuela. Handik urte batzuetara Hotel Urola izena hartu zuen eta erakargarri moduan ondorengo leloa erabiltzen zuen garaiko prentsan: Hotel Altuna, el mas cercano a las estaciones”¹¹⁴.

Zumaia-Salvatore 1853an eta Azpeitia-Urretxu bi errepideak, 1862an, eraikiak zeuden. Trenez Bilbaotik Donostiara joateko, Zumarragatik igaro behar zen, Durango-Zumarraga 1889an inauguratu zuten eta, Kostako Euskotrena, aldiz, 1900an. Bestalde, Tolosa-Elgoibar eta Debarroko errepideak 1850.eko hamarkadan eraikiak izan ziren. Zumarraga Paris, Madril, Bilbao eta Gipuzkoako herri guztiekin ondo komunikaturik zegoen XIX. mendean.

4.4. Juan Bautista Buska Preto eta trikitia Zumarragan

